

Letren Fakultatea - UPV/EHU  
Itzulpengintza eta Interpretazioa  
2020-2021 ikasturtea

# Atzerritarrentzako errusieraren irakaskuntza: mugimenduzko aditzak aginteran.

Ayla Sota Jiménez

Tutorea: Nerea Madariaga  
Jakintza-arloa: Eslaviar Filologia  
Saila: Ikasketa klasikoak

## **Laburpena (300-500 hitz)**

Gradu Amaierako Lan honetan, errusiera atzerriko hizkuntza gisa irakasten ari den irakaslea banintz bezala jokatuko dut eta errusieraren gramatikako atal zehatz bat landuko dut: mugimenduzko aditzak aginteran. Lehenik eta behin, lan honen bitartez lortu nahi ditudan helburuak azalduko ditut, baita helburu horiek lortzeko erabiliko dudan metodologia ere. Ondoren, lana bi atal nagusitan banatuko dut: azalpen teorikoa eta analisi praktikoa. Lehenengo atalean, ahalik eta sakonen deskribatuko dut gramatika arlo hori: azalpena mugimenduzko aditzekin hasiko da, jarraian aginteraren osaketari helduko dio eta mugimenduzko aditzen aginterarekin amaituko da. Behin azalpen teorikoa bukatuta, bigarren atala hasiko da, eta bertan, errusiera irakasteko dagoen materiala aztertzeari ekingo diot. Gaur egun eskura ditugun eskuliburu orokorrak, eskuliburu espezifikokoak eta gramatika praktikokoak ikertuko ditut. Liburu bakoitzak aztergai dugun gaia nola lantzen duen ikusiko dut: azalpen teorikoak ematen duten ala ez, adibideak eskaintzen diren ala ez, ariketak dauden ala ez etb. Azkenik, bildutako informazio guztia baloratuko dut, eta ondorioztatuko dut ea aztertutako liburuak gai hau irakasteko baliagarriak diren ala ez.

# AURKIBIDEA

<b>1. Helburuak eta metodologia</b>	3
<b>2. Mugimenduzko aditzak</b>	4
2.1 Aurrizkirik gabeko aditzak	4
2.1.1 Norabide bakarrekoak	5
2.1.2 Norabide anitzekoak	6
2.2 Aurrizkidun aditzak	7
2.2.1 По- aurrizkia	7
2.2.2 Gainerako aurrizkiak	8
<b>3. Agintera</b>	11
3.1 Bigarren pertsonako agintera	11
3.1.1 Bigarren pertsonako aginteraren eraketa	11
3.1.2 Bigarren pertsonako aginteraren erabilera	13
3.2 Aginteraren mekanismo alternatiboak	14
<b>4. Mugimenduzko aditzen agintera</b>	16
4.1 Mugimenduzko aditzen bigarren pertsonako agintera	16
4.3 Mugimenduzko aditzen aginteraren mekanismo alternatiboak	17
4.4 RKI Ikasleek landu beharreko puntuak	19
<b>5. Material didaktikoaren konparaketa eta azterketa</b>	20
<b>5.1 Eskuliburu orokorrak</b>	20
5.1.1 5 Элементов	20
5.1.2 Поехали	27
<b>5.2 Eskuliburu espezifikoak</b>	33
5.2.1 Изучаем Русские Глаголы Движения	33
5.2.2 Приходите! Приезжайте! Прилетайте!	35
5.2.3 Идти или Ходить?	36
5.2.4 Verbos de movimientos rusos tablas y ejercicios	37
<b>5.3 Gramatika praktikoak</b>	37
5.3.1 Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях	37
5.3.2 Чистая Грамматика	40
<b>6. Ondorioak</b>	45
<b>7. Bibliografia</b>	47

# 1. Helburuak eta metodologia

Gradu Amaierako Lan honen helburua, mugimenduzko aditzen agintera azaltzea da, baina RKI-ko irakasle baten ikuspuntutik (Русский язык Как Иностраный, errusiera atzerriko hizkuntza gisa). Gai hau aukeratu nuen batez ere jakin-mina sortu zitzaidalako arlo honen inguruan, ikasle izanik landu ez dudana alderdia delako. Gainera, eskuliburu orokorretan oso gutxi azaltzen den gaia da, eta buruhaustea eta ulermen zailtasunak sorraraz ditzake. Horregatik guztiagatik, gai hau aukeratu nuen erronka polita eta aberasgarria izango zelako ustean.

Gai konplexu hau ikasleei ondo azaldu ahal izateko, ezinbestekoa da nik neuk irakasle gisa gaia ondo ezagutzea, sakontzea eta batez ere, ondo ulertzea. Hori dela eta, lehenengo atalean, azalpen teorikoa eskainiko dut eskuliburuaren azalpenak eta deskripzioak erabiliz. Hasteko, mugimenduzko aditzak definituko ditut, bai aurrizkidunak, bai aurrizkirik gabekoak. Ondoren, aginteraren eraketan eta erabileran zentratuko naiz. Eta azalpen teorikoa bukatzeko, mugimenduzko aditzen agintera aztertuko dut. Azpial honen barne hartuko ditu idazkeran eta ahoskeran ematen diren aldaketak, aurrizkien kasuak, zailtasunak etb.

Bigarren atalean, errusiera irakasteko material batzuk ikertuko ditut. Baliabide horien artean irakaskuntzarako ohikoak diren 2 eskuliburu aztertuko ditut: *5 Элементов* eta *Поехали*. Ondoren, 4 liburu espezifikoko hauek baliatuko ditut: *Изучаем Русские Глаголы Движения, Приходите! Приезжайте! Прилетайте!, Идти или Ходить?*, eta *Verbos de movimientos rusos*. Eta amaitzeko 2 gramatika liburu hauek aztertu eta konparatuko ditut: *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях*. *Морфология* eta *Чистая Грамматика*. Liburu guzti hauek aztertzerakoan, gramatikako gai hau lantzeko dauden azalpenak eta ariketak behatuko ditut. Era honetan, materialen arteko konparaketa egingo dut, eta baloratuko dut ea aztertutako eskuliburuak gai hori irakasteko baliagarriak diren ala ez. Azterketan zehar ikasitako eta ikusitako guztian oinarrituta, ondorio batzuk eskainiko ditut.

## 2. Mugimenduzko aditzak

Errusierazko aditzak ikasterakoan, mugimenduzko aditzak deiturikoekin egiten dugu topo, zalantzarik gabe, errusieraren zati gramatikal esanguratsu eta konplexuenetako bat. Mugimenduzko aditzak, izenak dioen bezala, leku batetik besterako mugimendua adierazten duten aditzak dira. Errusiar hizkuntzak, gainera, zehaztu egiten du zein garraibidetan gertatzen den mugimendua (oinez, kotxez, hegazkinez...).

Mugimenduzko aditzak azaltzeko, bi talde bereiziko ditut: aurrizkirik gabekoak eta aurrizkidunak. Aurrizkia hitz baten erroaren aurrean kokatzen den hizkia da, eta jatorrizko hitzaren esanahia aldatu egiten du, hitz berri bat sortuz. Adibidez, *ходить* (ibili) aditzari *вы-* aurrizkia gehitzen badiogu, aditz berri bat lortzen dugu: *выходить* (leku batetik atera).

### 2.1 Aurrizkirik gabeko aditzak

Aurrizkirik gabeko aditzek bi aditz burutugabe dituzte. Hau da, ekintza bera izendatzeko bi infinitibo forma daude (bi *aktionsart*). Adibidez “ibili” adierazteko bi forma hauek topatuko ditugu: *идти* eta *ходить*. Hona hemen aurrizkirik gabeko aditz pare ohikoenak:

Sub-Group I	Sub-Group II	
<b>идти́</b>	<b>ходи́ть</b>	‘to go’
<b>бежа́ть</b>	<b>бега́ть</b>	‘to run’
<b>эха́ть</b>	<b>эзди́ть</b>	‘to go’
<b>летéть</b>	<b>летáть</b>	‘to fly’
<b>плы́ть</b>	<b>пла́вать</b>	‘to swim’, ‘to sail’
<b>нести́</b>	<b>носи́ть</b>	‘to carry (in (one’s) hands)’
<b>везти́</b>	<b>води́ть</b>	‘to carry (in a vehicle)’
<b>вести́</b>	<b>води́ть</b>	‘to lead’

1. Irudia: *Russian: A practical grammar with exercises* (Pulkina, 2000: 256)

Taulan ikus dezakegunez, aurrizki gabeko aditz guztiak aspektu burugabekoak izan arren, bi *aktionsart* desberdin dituzte. Era simple batean esanda, mugimenduaren arabera *aktionsart* bat ala bestea erabili beharko da: norabide bakarra adierazteko edo norabide anitza adierazteko. (Levine, 2009: 207). Aurreko irudiari jarraituz, lehenengo taldekoek norabide bakarra adierazten dute eta bigarren taldekoek norabide anitza. Dena den, hori sailkapen orokorra baino ez da, hurrengo atalean gaia gehiago sakonduko dut eta bakoitzaren erabilerak azalduko ditut zehatz mehatz.

### 2.1.1 Norabide bakarrekoak

Talde honetako aditzek honako adiera hauek izan ditzakete (Levine, 2009: 273):

1. Norabide bakarreko mugimendua. Beraz, “ibili” aditzako *идти* forma erabiliz gero, “joan” bakarrik esango du, baina ez “joan eta itzuli”.

*Она шла в театр одна* > Bakarrik zihoan antzerkira.

(Esaldia soilik adierazten digu nola joan den antzerkira, ez dakigu itzuli den ala ez.)

2. Momentuan gertatzen ari den ekintza.

*Мы едем к другу.* > Lagun baten etxera goaz (garraiobide batean).

3. Etorkizuneko planak eta asmoak. Etorkizun hurbilean burutu nahi ditugun planak adierazteko.

*Завтра мы едем на дачу.* > Bihar datxara joango gara (garraiobide batean).

4. Esamolde batzuetarako. Esamolde hauetan aditzen zentzu figuratiboa erabiltzen da denboraz, eguraldiaz, bizitzaz eta mota horietako gaiez hitz egiteko.

*Как летит время!* > Zein azkar pasatzen den denbora!

*Как у вас идут дела?* > Zer moduz zaude?

*Сегодня шёл дождь.* > Gaur euria egin du.

Norabide bakarreko mugimenduak, lau adiera horiek izateaz gain, beste zenbait kasutan ere erabil daitezke (Редькина, 2008: 115):

5. Aldibereko ekintzak adierazteko: Bi ekintza aldiberean gertatzen ari direnean

*Когда она ехала в Киев, смотрела в окно.* > Kievera zihoan bitartean, leihotik begira zegoen.

6. Mugitzen ari garenean, beste ekintza bat gertatzen denean.

*Когда он шёл в театр, он встретил друга* > Antzerkira zihoala, lagun batekin egin zuen topo.

### 2.1.2 Norabide anitzekoak

Norabide anitzeko aditzak honako kasu hauetan erabil daitezke (Levine, 2009: 274):

1. Mugimendu zehaztugabea. Kasu hauetan ez dago norabide edo helmuga zehatzik, norabide ezberdinetara mugitzen gara.

*Мы ходили по парку.* > Parketik paseatu genuen.

2. Joan eta etorriko mugimendua iraganean. Mota honetako mugimenduei buruz hitz egiteko, norabide anitzeko aditzak erabiltzen ditugu, ekintzak bi mugimendu barne hartzen dituelako: joan eta itzuli.

—*Где вы были в субботу?* — Non egon zineten larunbatean?

—*Мы ездили на дачу.* — Datxara joan ginen (eta jada itzuli gara).

3. Ohiko ekintza. Behin baino gehiagotan errepikatzen den mugimendua da.

*Он каждый день ходит в институт.* > Egunero institutura joaten da.

4. Ekintza bati buruzko ideia ezberdinak adierazteko (ahalmena, gustua, beldurra etb.). Horregatik askotan mugimenduzko aditzak ondorengo aditzekin agertzen dira: *уметь* (jakin), *любить* (maitatu), *нравиться* (gustatu), eta *бояться* (beldurra izan).

*Он не умеет плавать.* > Ez daki igeri egiten.

5. Zentzu figuratiboa. Aditzen zentzu figuratiboa erabiltzen da zenbait esamolde egiteko. Hona hemen adibide batzuk (Бабаханян, 2015:77)

*Я не хочу носить очки* > Ez dut betaurrekorik eraman nahi.

*Сколько времени? Часы не ходят.* > Zer ordu da? Erlojua ez dabil.

*Ходят слухи, что он болен.* > Gaixorik dagoelako zurrumurrua dabil.

## 2.2 Aurrizkidun aditzak

Mugimenduzko aditz guztiei aurrizki ezberdinak gehitu ahal dizkiegu. Aurrizkiak aditzaren aurrean jartzen dira hitz berriak sortzeko. Oinarri gisa hartzen dugun aditzaren arabera aldaketak sorraraz daitezke, batzuetan aldaketa gramatikalak (aspektua) eta beste batzuetan aldaketa lexikoak (esanahia).

Aurrizki guztien artean, badago bat besteengandik garbi bereizten dena: *no* aurrizkia. Kasu bitxi samarra da, eta gainera errusiera ikasleengan zailtasunak sortu ohi ditu. Horregatik, aurrizkiak aztertzerakoan, bi atal bereiziko ditugu. Lehenengo atalean *no* aurrizkia bakarrik aztertuko da, eta bigarren atalean gainerako aurrizkiak.

### 2.2.1 *По-* aurrizkia

Lehen aipatu dudan bezala, aurrizkirik gabeko mugimenduzko aditzek bi forma burutugabe dituzte: norabide bakarreko formak edo norabide anitzeko formak.

Norabide bakarreko infinitiboa hartu eta *no-* aurrizkia gehitzen badiogu, aditzaren forma burutua eskuratuko dugu. (Шведова, 1980: 589). Honako taula honetan ikus ditzakegu norabide bakarreko aditzen forma burutugabea (aurrizkirik gabe) eta burutua (*по-* aurrizkiarekin) :

UNIDIRECTIONAL IMPERFECTIVE	PREFIXED PERFECTIVE
идти́	пойти́
е́хать	пое́хать
бежа́ть	побежа́ть
лете́ть	полете́ть
пла́ть	попла́ть
нести́	понести́
везти́	повезти́
вести́	повести́

2. Irudia: *Russian Grammar*. (Levine, J., 2009: 277)

Ikus dezagun argiago adibide batekin (Pulkina, 2000: 267):

*Вчера после занятий мы пошли в кино* > Atzo eskola ostean zinemara joan ginen.

*По-* aurrizkiak forma burutua sortzeaz gain, mugimenduaren hasiera adierazten du. (Levine, 2009:277) Adibidez:



*Девочка увидела отца и побежала к нему.* > Haurrak aita ikusi zuenean, korrika hasi zen harengana.

Dena den, *no-* aurrizkia ez da soilik norabide bakarreko aditzekin erabiltzen. Norabide anitzeko aditzekin ere erabil daiteke. Baina, kasu horietan, *no-* aurrizkia gehitzerakoan aditzaren esanahia aldatu egiten dugu. Zehazki, ekintza denboraldi labur batean gertatzen ari dela adieraziko dugu. (Levine, 2009: 278).

*Они поехали немного по городу.* > Hirian zehar gidatzen egon ziren denbora batean.

*Самолёт полетал несколько минут над аэропортом и приземлился.* > Hegazkinak minutu batzuk egin zituen hegan aireportu gainetik eta gero lurreratu zen.

### 2.2.2 Gainerako aurrizkiak

Gainerako aurrizkiek antzera jokatzen dute (Levine, 2009: 279):

- Norabide bakarreko aditz burutugabe bat hartu eta aurrizki bat gehitzen badiogu, aditz hori burutu bihurtuko da, eta gainera esanahi espezifiko bat emango zaio. Adibidez:

Aditza	<i>Идти</i>	<i>Войти</i>
Aspektua	Burutugabea	Burutua
Esanahia	Joan	Leku batera sartu

- Norabide anitzeko aditz burutugabe bati gehitzen badiogu, ez da aspektua aldatuko baina bai esanahia. Adibidez:






Aditza	<i>Ходить</i>	<i>Входить</i>
Aspektua	Burutugabea	Burutugabea
Esanahia	Ibili	Leku batera sartu







Hona hemen aurrizki ohikoenak:

DIRECTIONAL PREFIX	BASIC MEANING
при-	come, arrive
у-	leave, depart
в-	into, enter into
вы-	out, exit
под-	come up to, approach
от-	away from
пере-	across
про-	past; through
за-	drop in; behind

3. Irudia: *Russian Grammar*. (Levine, 2009: 279)

Aurrizki hauek argiagi ikusteko, hona hemen adibideak eta irudiak dituen beste taula bat:

<b>В-</b>	Motion to the inner part of something		входить/войти въезжать/ въехать	Куда? К кому? Where? To whom?	в, на, к	1. Машина <b>въехала</b> в гараж. 2. Студент <b>вошёл</b> в аудиторию.
<b>ВЫ-</b>	Motion from the inside to the outside		выходить/ выйти выезжать/ выехать	Откуда? От кого? From where? From whom?	из, с, от	1. Мама <b>вышла</b> из комнаты. 2. Мы <b>выехали</b> из города рано утром. 3. Самолёт <b>вылетел</b> по расписанию.
<b>ПОД-</b>	Coming near to something		подходить/ подойти подъезжать/ подъехать	Куда? К кому? Where? To whom?	к	1. Он <b>подошёл</b> к метро и остановился. 2. Машина <b>подъехала</b> к магазину. 3. Внимание, пассажиры! Наш самолёт <b>подлетает</b> к аэропорту.
<b>ОТ-</b>	Going away from something		отходить/ отойти отъезжать/ отъехать	Откуда? От кого? From where? From whom?	от	1. <b>Отойди</b> от меня! 2. Автобус <b>отъехал</b> от остановки.
<b>ДО-</b>	Reaching an object		доходить/ дойти доезжать/ доехать	До чего? До кого? Reached what? Reached whom?	до	1. Мы <b>дошли</b> до театра и остановились. 2. Такси <b>доехало</b> до нашего дома. 3. Мы <b>долетели</b> за 2 часа.

<b>за-</b>	Motion to the inner part of something for a short while, movement round the corner of an object or building		заходить/ зайти заезжать/ заехать	Куда? К кому? За что? За чем? Where? To whom? Behind what? What for?	за, к 1. <b>Зайди ко</b> мне на минутку! 2. Я <b>зашёл</b> в магазин <b>за</b> хлебом. 3. Машина <b>заехала за</b> угол.
<b>об(о)-</b>	Motion around something		обходить/ обойти объезжать/ объехать	Что? Кого? What? Whom?	1. Нам надо <b>обойти</b> эту лужу. 2. Мы не проедем здесь, <b>нужно объехать</b> эту улицу. 3. Этот турист <b>объехал</b> весь мир!
<b>про-</b>	Motion past something, parallel to something		проходить/ пройти проезжать/ проехать	Через что? Вдоль чего? Что? Кого? Through what? Along what? What? Whom?	через, вдоль, мимо 1. <b>Проходите</b> , пожалуйста, в зал! 2. Мы <b>проехали</b> пять кварталов. 3. Спортсмен <b>пробежал</b> дистанцию быстрее всех!
<b>пере-</b>	Motion from one object to another.		переходить/ перейти переезжать/ переехать	Что? Кого? Через что? What? Whom? Across what?	через 1. Здесь нельзя <b>переходить</b> улицу! 2. Она недавно <b>переехала</b> сюда из другого города. 3. <b>Переходить</b> <b>через</b> дорогу можно только на зелёный сигнал светофора.
<b>при-</b>	Somebody's presence in the given place		приходить/ прийти приезжать/ приехать	Куда? К кому? Where? To whom?	в, на, к 1. <b>К</b> нам <b>пришли</b> наши старые друзья. 2. Вчера <b>приехал</b> мой старший брат. 3. <b>В</b> город <b>приехал</b> цирк.
<b>у-</b>	Somebody's absence in the given place		уходить/ уйти уезжать/ уехать	Откуда? От кого? From where? From whom?	из, с, от 1. Мы <b>улетаем</b> утром. 2. После каникул студенты снова <b>уезжают</b> из дома.

4. Irudia: *Learnrussian.rt.com Verbs of Motion With Prefixes* (Irabazi-asmorik gabeko erakunde autonomoa "TV-Novosti", 2020)

Baina kontuz ibili behar dugu idazkerarekin, aurrizkiak eransterakoan zenbait aldaketa morfologiko baitaude. (Levine, 2009: 279)

- *Идти* aurrizkia baten ostean *-йти* bihurtzen da. (*прийти, уйти*).
- Kontsonantez amaitzen diren aurrizkietan “о” bokala erantsi behar diogu *-йти* baino lehen (*войти, отойти, подойти*).
- *Ехать* eta *ездить* aditzen kasuan, kontsonantez bukatutako aurrizkiak jarritz gero, *ъ* ikur gogorra ipini behar dugu. (*въехать, отъехать, подъехать*).
- *Плывать* aditzari aurrizkia eranstea, erroa *-плывать* bihurtzen da (*проплывать, уплыть*)

### 3. Agintera

Agintera aginduak emateko, abisua edo ohartarazpena adierazteko edo eskariak egiteko erabiltzen da (Levine, 2009: 254). Errusierazko aginterak, gainerako hizkuntzek bezala, bi forma ditu: bigarren pertsona singularra eta bigarren pertsona plurala (Pulkina, 2000: 237).

Morfologikoki bakarrik 2. pertsonako agintera existitzen den arren, errusieraz mekanismo alternatiboak existitzen dira 1. eta 3. pertsonentzako agintera egiteko. Beraz, aginteraren eraketaren barruan bi atal bereiziko ditut: alde batetik, 2. pertsonako agintera eta beste aldetik, mekanismo alternatiboak.

#### 3.1 Bigarren pertsonako agintera

##### 3.1.1 Bigarren pertsonako aginteraren eraketa

Bigarren pertsona singularreko eta pluraleko agintera osatzeko, aditz erroa hartu eta honako bukaera hauek gehitu behar ditugu (Pulkina, 2000: 237):

	Singularra ( <i>Ты</i> )	Plurala ( <i>Вы</i> )
1)	-и ( <i>смотри</i> )	-ите ( <i>смотрите</i> )
2)	-й ( <i>читай</i> )	-йте ( <i>читайте</i> )
	-ь ( <i>готовь</i> )	-ьте ( <i>готовьте</i> )

Zer bukaera erabili behar dugun jakiteko, aditz erroa atera eta aditzaren konjugazioan azentua non dagoen begiratu behar dugu (Pulkina, 2000: 234):

1) Azentua lehen pertsona singularreko aditzaren amaieran dagoenean, hau da, -ý/-ю amaiera azentuduna dutenean. Ezinbestekoa da -ý/-ю amaieraren aurretik kontsonante bat egotea. Kasu hauetan -ú(*me*) bukaera azentuduna erabiltzen da. Adibidez:

*Смотреть* > *смотрю* > *смотру́(ме)*

*Говорить* > *говорю* > *говори́(ме)*

Agintera eratzerakoan, gogoratu behar dugu kontsonante-alternantzia duten aditzek aldaketa bera jasango dutela aginteran ere. Adibidez: *сказать* > *скажу́* > *скажи́(те)*. (Levine, 2009: 254)

2) Azentua aditzaren erroan dagoenean. Talde honetako aditzak, zehazkiago, bi azpitaldetan bana ditzakegu (Levine, 2009: 254):

- Lehen pertsona singularrako aditzaren amaiera *-y/-ю* denean, baina bokal baten ostean. Kasu horietan *-й(те)* bukaera gehitu behar da agintera sortzeko:
  - Чита́ть* > *чита́ю* > *чита́й*
  - Занима́ться* > *занима́юсь* > *занима́йся*
 Kontuz ibili behar dugu, aditz erroan *-ва-* duten aditzetan, aditz horien agintera osatzerakoan *-ва-* mantendu behar baitugu: *дава́й(те)*, *встава́й(те)*...
- Bukaera ezberdinak dituzten aditz-erroetan bi aukera ditugu:
  - Erroaren amaieran bokala dagoenean, bokala galdu egiten da eta *-ь* hizkia gehitzen zaio. (Nahiz eta aurreko kontsonantea gogorra izan). Adibidez: *готова́(те)*, *брось(те)*, *ответь(те)*...
  - Erroa bokalez amaitzen da, baina bokal horren aurretik bi kontsonante batera daude. Kasu hauetan, bokala ez da galtzen: *кончи(те)*, *по́мни(те)*...

Orokorrean aditz guztiak arau hauek jarraitzen dituzte agintera eratzeko, baina badaude salbuespen batzuk. (Levine, 2009: 255) Hona hemen gehien erabiltzen diren salbuespenak:

Euskaraz	Infinitiboa	Agintera
jan	<i>есть</i>	<i>ешь(те)</i>
etzan	<i>лечь</i>	<i>ляг(те)</i>
eman	<i>дать</i>	<i>дай(те)</i>
joan (garraio batean)	<i>ехать</i>	<i>езжай(те)</i>
edan	<i>пить</i>	<i>пей(те)</i>

### 3.1.2 Bigarren pertsonako aginteraren erabilera

Ikusi dugun bezala, bigarren pertsonako agintera aginduak emateko edo eskariak egiteko erabiltzen da (Levine, 2009: 254). Baina sakonago aztertuz gero, ikusiko dugu esanahia asko aldatu egiten dela aditz burutuekin eta burutugabeekin.

Aditz burutuekin eratzen den agintera agindu, eskaera edo gomendio puntualak egiteko erabiltzen da. Kasu horietan, ekintza behin egingo da eta zuzenean emaitza bat izango du. (Pulkina, 2000: 330). Adibidez:

*Откройте книги* > Ireki liburuak.

*Покажите фотографии* > Erakutsi argazkiak.

Aditz burutugabeekin erabiltzen diren aginterek, aldiz, esanahi bat baino gehiago izan dezakete testuinguruaren arabera. Hona hemen, esanahi ohikoenak (Pulkina, 2000: 331):

1. Ekintza baten hasiera adierazteko. Normalean, egileak badaki ekintza hasi behar duela. Adibidez: ikasleek liburua ireki dute, testu bat dute aurrean eta irakasleak honakoa esaten die:

*Читайте!* > Irakurri!

2. Gelditu den ekintza bat berriro hasteko edo martxan jartzeko. Adibidez:

*Что же вы молчите? Говорите!* > Zergatik isildu zarete? Jarraitu hitz egiten!

3. Prozesuan dagoen ekintza bat aldatzeko. Adibidez: ikasle bat baxuegi hitz egiten ari da eta ezin diogu ondo entzun, horregatik irakasleak zera dio:

*Говори громче!* > Altuago hitz egin!

4. Gonbidapen formalak egiteko.

*Проходите и садитесь, пожалуйста.* > Mesedez, sartu eta eseri.

Horiez gain, gogoratu behar dugu ezezko aginterak ere sortu daitezkeela *не* partikularekin. Ezezko partikula aditz burutugabeekin doanean, esaldiak debeku izaera du eta aditz burutuekin doanean, ohartarazpen balioa. (Levine, 2009: 256)

*Не смотрите этот фильм.* > Ez ikusi film hori. (Debekua edo gomendioa)

*Не упадите, здесь скользко.* > Kontuz, eroriko zara, zorua irristakor dago. (Abisua)

### 3.2 Aginteraren mekanismo alternatiboak

Hasieran aipatu dudan bezala, errusieraz mekanismo alternatiboak existitzen dira 1. eta 3. pertsonentzako agintera egiteko.

Lehenengo pertsonako agintera hitzunarekin batera burutuko den ekintza bat iradokitzeke erabiltzen da. Adibidez, *goazen jolastera!*. Mota honetako agintera bi eratara sortu ohi da: (Levine, 2009: 258)

#### 1) Давай/давайте + infinitibo burutugabea.

Forma hori erabiltzen da ekintza jarraitua edo errepikatua denean. *Давай* pertsona bakar bati modu informalean hitz egiteko erabiltzen da, eta *давайте* modu formalean hitz egiteko edo pertsona bat baino gehiagori zuzentzeko. Adibidez: *Давайте читать только по-русски.* > Errusieraz bakarrik irakur dezagun!.

#### 2) Давай(те) + lehenengo pertsona pluraleko aditz burutua

Kasu hau erabiltzen da hizlariak ekintza konkretu bakarra iradokitzen duenean. Aurrekoan bezala, agintera eratzeko *давай(те)* hitzari aditz bat gehituko diogu; baina oraingoan aditza burutua izango da eta lehen pertsona pluralean jokatura egongo da (*мы*).

*Давай встретимся в два часа.* > Ordu bietan puntuan gera gaitzen.

Bi forma horiez gain, badaude lehenengo pertsonentzako agintera adierazteko beste era batzuk (Шведова, 1980: 620):

#### 3) Давай(те) + [ lehenengo pertsona plurala + те]

Kasu honetan lehenengo *давай(те)* aditza jartzen dugu eta ondoren aditz jokaturaren *-те* partikularekin. Forma hori batez ere, eguneroko hizkeran eta era informalean erabiltzen da, hala nola, lagunarteko elkarrizketetan. Adibidez:

*Давайте напишемте!* > Idatz dezagun!

4) Lehenengo pertsona plurala + те.

Kasu hau ere hizlariak eta entzuleek parte hartzen duten ekintza bati buruz hitz egiteko erabiltzen da. Forma hori eratzeko ezinbestekoa da norabide bakarreko mugimenduzko aditzak lehenengo pertsona pluralean jokatzeko eta aditz horien bukaeran *-me* partikula eranstea. Adibidez:

*Пойдемте!* > Goazen!

5) Lehenengo pertsona plurala

Forma honetan agintera osatzeko pausu bakarra eman behar da: aditzaren forma burutua lehen pertsona pluralean jokatu (мы). Kasu hauetan aditz-denbora agintera dela jakiteko, testuingurua eta ahots-tonua kontuan hartu behar ditugu. Adibidez:

*Сыграем!* > Jolas dezagun!

6) Будем + infinitiboa

Forma hau osatzeko будем aditzari infinitibo bat gehitzen zaio. Adibidez:

*Будем играть!* > Jolas dezagun!

Forma guzti hauen artean, gehien erabiltzen direnak 1., 2., eta 5. dira. Izan ere, 3. forma nahiko arkaikoa da eta 4. forma ez da hainbeste entzuten. 4. forma “joan” aditzarekin baino ez da erabiltzen: *пойдемте*.

Hirugarren pertsonentzako aginterak, aldiz, hirugarren pertsona bati baimena emateko edo eskaera bat egiteko balio du. Agintera hori honako hitz hauekin eratzen da: пусть edo пускай. Hitz horri aditz burutuak edo burutugabeak gehituko dizkiogu ekintzaren arabera. (Levine, 2009: 259):

*Пусть дети играют.* > Utzi haurrei jolasten. / Haurrek jolas dezatela.

*Пусть она расскажет* > Utzi hari kontatzen / Berak konta dezala.



## 4. Mugimenduzko aditzen agintera

Aurreko atalean agintera orokorrean aztertu dut, eta orain mugimenduzko aditzen aginterari helduko diot. Izan ere, mugimenduzko aditzek aginteraren arau nagusiak bete arren, zenbait ñabardura berezi dituzte: idazkeran, esanahian eta erabileran, hain zuzen ere. Beraz, atal honetan ñabardura guzti horiek azpimarratu eta azalduko ditut. Honetarako, aginteran egin dudan bezala, bi zati bereziko ditut: bigarren pertsonako agintera eta aginteraren mekanismo alternatiboak.

### 4.1 Mugimenduzko aditzen bigarren pertsonako agintera

Mugimenduzko aditzen bigarren pertsonako aginterak aginteraren arau orokorrak jarraitzen ditu. Hau da, aditz erroari honako bukaera hauek gehitzen zaizkio: -и/-ите, -й/йте edo -ь/-ьте (Pulkina, 2000: 237). Zer bukaera aukeratu behar dugun jakiteko aditz-jokoan azentua non dagoen begiratu behar dugu (Levine, 2009: 254). Adibidez:

*ходить* > *хожу* > *ходи(те)*

Arau hauek kontuan izanda, mugimenduzko aditzen agintera erraz sor dezakegu. Argi gera dadin, hona hemen mugimenduzko aditz ohikoen aginterazko forma adierazten duten bi taula. Lehenengo taulan mugimenduzko aditz iragankorrak jasota daude, eta bigarrean, berriz, aditz iragangaitzak:

#### Intransitive Verbs of Motion

INFINITIVE	NON-PAST	PAST	IMPERATIVE
(1) <i>to walk, go on foot</i>			
идти (U)	иду́, идёшь, идут	шёл, шла́, шли́	иди́(те)
ходить (M)	хожу́, ходишь, ходят	ходил, ходила́, ходили́	ходи́(те)
(2) <i>to ride, go by vehicle</i>			
ехать (U)	еду́, едешь, едут	ехал, ехала́, ехали́	поезжай́(те)
ездить (M)	езжу́, ездешь, ездят	ездил, ездила́, ездили́	езди́(те)
(3) <i>to run</i>			
бежать (U)	бежу́, бежишь, бежит, бежим, бежите, бегут	бежал, бежала́, бежали́	беги́(те)
бегать (M)	бегаю́, бегаешь, бегают	бегал, бегала́, бегали́	бегай́(те)
(4) <i>to fly</i>			
лететь (U)	лечу́, летишь, летят	летел, летела́, летели́	лети́(те)
летать (M)	летаю́, летаешь, летают	летал, летала́, летали́	летай́(те)
(5) <i>to swim; to sail</i>			
плыть (U)	плыву́, плывёшь, плывут	плыл, плыла́, плыли́	плыви́(те)
плавать (M)	плаваю́, плаваешь, плавают	плавал, плавала́, плавали́	плавай́(те)

## 5. Irudia: *Russian Grammar*. (Levine, 2009: 272)

	INFINITIVE	NON-PAST	PAST	IMPERATIVE
(1)	<i>to carry (while walking)</i>			
	нести (U)	несу́, несёшь, несу́т	нёс, несла́, несли́	неси́(те)
	носить (M)	ношу́, но́сишь, но́сят	носи́л, носи́ла, носи́ли	носи́(те)
(2)	<i>to transport, to take by vehicle</i>			
	везти́ (U)	везу́, везёшь, везу́т	вёз, везла́, везли́	вези́(те)
	вози́ть (M)	вожу́, во́зишь, во́зят	вози́л, вози́ла, вози́ли	вози́(те)
(3)	<i>to lead on foot</i>			
	вести́ (U)	веду́, ведёшь, веду́т	вёл, вела́, вели́	веди́(те)
	води́ть (M)	вожу́, во́дишь, во́дят	води́л, води́ла, води́ли	води́(те)

## 6. Irudia: *Russian Grammar*. (Levine, 2009: 275)

Aditz gehienek arau orokorrak jarraitu arren, zenbait berezitasun topa daitezke:

- *Ехать* aditzaren agintera zaila izan daiteke, bai errusiarrentzat bai atzerriko ikasleentzat. Izan ere, arau orokorreari jarraituz gero, \**exai(me)* forma sortuko genuke, baina ez da gramatikalki zuzena eta ekiditu behar dugu. Haren ordeaz, honako forma hau erabili behar da: *поезжай(те)*.
- Zenbait aditzetan, kontuz ibili behar dugu eta arretaz begiratu behar diogu aditz-jokoari, kontsonante-alternantzia duten aditzek aldaketa bera jasango baitute aginteran ere. (Levine, 2009: 254) Adibidez:
  - *Бежать* > *бегу* > *беги(те)*.
  - *Плыть* > *плыву* > *плыви(те)*.

Aurreko atalean esan dugun bezala, normalean forma hauen helburua ekintza bat egitera bultzatzea da. Dena den, esanahi desberdinak izan ditzake intonazioaren edo beste tresna linguistiko batzuen arabera, adibidez: eskaera, erregua eta gomendioa (Шелякин, 2001: 120).

### 4.3 Mugimenduzko aditzen aginteraren mekanismo alternatiboak

Mekanismo alternatiboak existitzen dira 1. eta 3. pertsonentzako agintera eratzeko. Aurreko atalean aditz arrunten aukera guztiak jaso ditut, baina orain mugimenduzko aditzekin soilik erabiltzen direnak aipatuko ditut. Lehenengo pertsonako aginteran hiru forma hauek dira ohikoenak:

### 1) По- aurrizkia + iragana

Mekanismo alternatiboen artean, hau da beharbada gehien erabiltzen dena.

Forma hau eratzeko *no-* aurrizkiari aditza iraganean gehitu behar diogu.

(Шведова, 1980: 618)

*Пошла отсюда, на кухню!* > Irten hemendik, eta joan sukaldera!

(agindua)

Dena den, forma hau batez ere planak iradokitzeke erabiltzen da (Levine, 2000: 277). Adibidez:

*Поехали на выставку!* > Goazen erakusketara!

### 2) Lehenengo pertsona plurala

Norabide bakarreko aditz burutuekin askotan erabiltzen den forma da. Forma hau osatzeko aditza lehen pertsona pluralean jokatu behar dugu (*мы*). (Шведова, 1980: 620) Adibidez:

*едем, бежим, летим...*

### 3) Lehenengo pertsona plurala + те.

Gaur egun forma hau ez da hainbeste erabiltzen. Norabide bakarreko mugimenduzko aditzekin soilik erabiltzen da. Aditza lehenengo pertsona pluralean jokatzen da eta bukaeran *те* partikula eransten zaio. Adibidez:

*Пойдемте!* > Goazen!

Hirugarren pertsonentzako aginteran, aldiz, forma bakarra dago eta honako hitz hauekin eratzen da: *пусть* edo *пускай*. Hitz horri aditz burutuak edo burutugabeak gehituko dizkiogu ekintzaren arabera. (Levine, 2009: 259):

*Пусть дети бегают.* > Utzi haurrei korrika egiten./Haurrek korrika egin dezatela.

*Пускай идём!* > Utz iezaiozu joaten!/ Joan dadila.

#### 4.4 RKI Ikasleek landu beharreko puntuak

Mugimenduzko aditzen agintera ondo ulertzeko eta ikasteko ezinbestekoa iruditzen zait eskuliburuek honako puntu hauek jorratzea:

<b>1. AGINTERA</b>	
1.1 Bigarren pertsonako aginteraren eraketa	a. Arau orokorrak b. Salbuespen ohikoenak ( <i>ешь(те), ляг(те), дай(те), ней(те),...</i> )
1.2 Bigarren pertsonako aginteraren erabilerak	a. Baiezko agintera b. Ezezko agintera *Aditz burutuen eta burutugabeen arteko ezberdintasuna
1.3 Aginteraren mekanismo alternatiboak	<i>дай(те), пусть,</i> lehenengo pertsona plurala etb.
<b>2. MUGIMENDUZKO ADITZAK</b>	
1. Oinarrizko kontzeptuak	a. Aurrizkirik gabeko aditzen bi <i>aktionsart</i> -ak. b. Aurrizkidun aditzen ohiko aspektua (burutua eta burutugabea)
2. Aditz-jokoa	a. Orainaldia b. Iragana
<b>3. MUGIMENDUZKO ADITZEN AGINTERA</b>	
1. Bigarren pertsonako agintera	a. Eraketa b. Kontsonante alternantzia: <i>Бежать &gt; беги(те)</i> c. Salbuespena: <i>поезжай(те)</i> d. Aurrizki gabeko aditzen baiezko vs ezezko agintera ( <i>иди vs не ходи</i> ) e. Aurrizkidun aditzen baiezko vs ezezko agintera ( <i>обойди - не обходи</i> )
2. Mekanismo alternatiboak	a. Arruntak: <i>дай(те)</i> eta <i>пусть</i> b. Mugimenduzko aditzekin soilik erabiltzen direnak: i. <i>По-</i> aurrizkia + iragana ii. Lehenengo pertsona plurala iii. Lehenengo pertsona plurala + <i>те</i> .

## 5. Material didaktikoaren konparaketa eta azterketa

Atal honetan, mugimenduzko aditzen agintera irakasteko dagoen materiala aztertuko eta konparatuko dut. Gaur egun, errusiera irakasteko material ugari dago, baina materiala ez da beti egokia eta ez du beti gai honi buruzko azalpenik jasotzen. Izan ere, gramatika atal hau askotan maila altuagoetan ikasteko uzten da edo oso azalean lantzen da.

Dena den, badaude gai hau lantzeko zenbait baliabide eta, beraz, horiek hartu eta ikertuko ditut. Hasteko, irakaskuntzarako ohikoak diren 2 eskuliburu aztertuko ditut: *5 Элементов*, eta *Поехали*. Ondoren, 4 liburu espezifikoko landuko ditut: *Изучаем Русские Глаголы Движения, Приходите! Приезжайте! Прилетайте!, Идти или Ходить?*, eta *Verbos de movimientos rusos*. Eta amaitzeko 2 gramatika liburu hauek aztertu eta konparatuko ditut: *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* eta *Чистая Грамматика*.

### 5.1 Eskuliburu orokorrak

Atal honetan 2 eskuliburu aztertuko ditut: *5 Элементов* eta *Поехали*. Kontuan hartu behar da liburu hauek ez direla oso maila aurreratura heltzen, B1 da daukaten maila altuena. Beraz, hutsune asko ikusiko ditugu gai hau aztertzerakoan.

#### 5.1.1 5 ЭЛЕМЕНТОВ

Aztertuko dudan lehen eskuliburua Русский язык: 5 элементов izango da. Eskuliburu honek 3 atal ditu: A1, A2 eta B1.

A1 liburuan, ez da mugimenduzko aditzen agintera lantzen. Alde batetik, aginteraren eraketa lantzen da eta bestetik mugimenduzko aditzak. Agintera 13. gaian lantzen hasten da. Hasieran, bigarren pertsonako aginteraren eraketa azaltzen da, baita *давай* mekanismo alternatiboa ere. Maila baxuko liburua denez, azalpenak oso eskematikoak eta orokorrak dira. Lantzen den aditz irregular bakarra *быть* aditza da (*будь/те*). Izan ere, azalpen horien helburua ez da gaia sakontzea, baizik eta gaineratik azaltzea, ikasleak agintera erabiltzen eta ulertzen has daitezten. Azalpenen ostean, 6 ariketa daude teoria praktikan jartzeko. Ariketa sinpleak eta errepikakorrak dira, ikasleek aginteraren eraketari buruz ikasi ahal izateko. Hona hemen adibide bat:

**ЗАДАНИЕ 287. Говорите императив в ситуации:**

- a) 1. Коллеги должны работать. \_\_\_\_\_
2. Ваш сын молчит и не отвечает на ваш вопрос. \_\_\_\_\_
3. Человек не слушает, что вы говорите. \_\_\_\_\_
4. Ваш коллега больше не может работать, он хочет отдыхать. \_\_\_\_\_
5. Вы думаете, что ваш друг покупает плохие книги. \_\_\_\_\_
6. Ваша подруга хочет смотреть фильм, который вы уже смотрели и который вы не любите. \_\_\_\_\_
7. Вы не любите, когда ваш муж / ваша жена курит в комнате. \_\_\_\_\_
8. Ваша дочь хочет жить одна. \_\_\_\_\_

Mugimenduzko aditzak, aldiz, ez dira 16. gaira arte lantzen. Zailtasun asko sor ditzakete, eta, horregatik, hasieratik oso ondo azaldu behar dira, ikasleek oinarri ona izan dezaten. Liburu honetan mugimenduzko aditzak irakasten hasteko, идти/ходить aditz parea erabiltzen da. Izan ere, asko erabiltzen diren aditzak dira eta horien bitartez ondo bereiz daitezke mugimenduzko aditzen barnean dauden bi taldeak: norabide bakarrekoak eta norabide anitzekoak.

Hasieran, aditz-jokoa lantzen da eta jarraian идти eta ходить aditzen desberdintasunak. Guzti hori barneratzeko 13 ariketa daude. Ariketak oraingoan ez dira hain errepikakorrak, batzuk galderak egiteko dira, beste batzuk hutsuneak betetzeko eta beste batzuk esaldiak egiteko. Adibide bat jartzearen, hona hemen ariketa bat:

**ЗАДАНИЕ 348. Пишите форму «идти» или «ходить» и прокомментируйте, почему → («ipi») или ⇔ («multi»).**

- a) 1. Я \_\_\_\_\_ (→) завтра в театр. 2. Мы каждый четверг \_\_\_\_\_ (⇔) в бассейн. 3. Когда ты \_\_\_\_\_ (→) домой? 4. Куда она \_\_\_\_\_ (→)?
5. Раньше спортсмены каждое утро \_\_\_\_\_ (⇔) на стадион. 6. Я никогда не \_\_\_\_\_ (→) в это кафе. 7. Уже 14:30, мы \_\_\_\_\_ (→) обедать. 8. Я никогда не \_\_\_\_\_ (⇔) в этот ресторан, но сегодня вечером мы \_\_\_\_\_ (→) туда.
1. Дети \_\_\_\_\_ (→) в музей. 2. Ты должен каждый день \_\_\_\_\_ (⇔) в институт? 3. Сегодня вечером будет вечеринка. Ты \_\_\_\_\_ (→)? 4. Я сегодня не могу \_\_\_\_\_ (→) на работу, у меня грипп. 5. Уже полночь? Я \_\_\_\_\_ (→) спать. 6. Она всегда \_\_\_\_\_ (⇔) туда пешком. 7. Когда утром я смотрела в окно, этот мальчик \_\_\_\_\_ (→) в школу, а сейчас он \_\_\_\_\_ (→) домой. 8. Месяц он не \_\_\_\_\_ (⇔) на работу, потому что лежал в больнице.

Nire ustez nahiko ondo lantzen da gramatika atal hau, azalpenak zehatzak eta argiak direlako, eta ariketak lagungarriak direlako teoria barneratzeko.

A2 liburuan, ez da mugimenduzko aditzen agintera lantzen. Aurreko liburuan bezala, bi gramatika atalak lantzen dira, baina bananduta.

26. gaian, идти aditzaren forma burutua (пойти) irakasten da. Hori da, hain zuzen ere, по- aurrizkia agertzen den lehenengo aldia. Gai berria eta zaila izan arren, azalpen txiki bat soilik ematen da eta 2 ariketa baino ez daude teoria lantzeko:

**ПО** → начало движения

идти / пойти: | →  
 пойд|у, пойд|ёшь, пойд|ут  
 past: пошёл, пошла́, пошли́



Вчера́ я **ходи́л** в магази́н (↔).  
 Я **пошёл** туда́ ве́чером (|→).  
 Когда́ я **шёл** по у́лице, **пошёл** дождь (|→).



Ikus dezakegunez, azalpena oso laburra eta ilun samarra da. Honekin soilik ikasleei kosta egin dakieke ariketak ulertzea eta egitea. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait irakasleak azalpen eta ariketa gehigarriak egitea.

Horrez gain, A2 liburuan, mugimenduzko aditzen beste aditz pare batzuk irakasten dira: ехать/ездить (29. gaian) eta лететь/летать (40. gaian). Azken aditz horiekin, y- eta при- aurrizkiak lantzen dira. Azalpen labur eta eskematikoak eman arren, ariketa ugari daude ikasleek kontzeptuak barneratu ahal izateko.

Aginterari dagokionez, 28. gaian, адить burutuen agintera agertzen da lehen aldiz. Искать, находить eta найти aditzak lantzeko ariketa batean lantzen da:

**в) Императив: ищи(те), находи(те), найди(те), теряй(те).**

1. Нíночка, \_\_\_\_\_, пожалуйста, в газéте рекламу конкурéнтов, я хочú её прочитáть. 2. Никогдá не \_\_\_\_\_ надежду! 3. Нáша фíрма — банкрот. \_\_\_\_\_ нóвую работú! 4. Не \_\_\_\_\_ éту кнìгу. Она у пáпы, он её сейчáс читáет. 5. Начинáй работáть прýмо сейчáс! Не \_\_\_\_\_ врéмя! 6. У вас óчень устáлый вид \_\_\_\_\_ врéмя для óтдыха! 7. \_\_\_\_\_ нáшу продúкцию в магазíне «Всё для дóма»! 8. Не \_\_\_\_\_ там дéньги, их там ужé нет! 9. Рекс! \_\_\_\_\_!

Ariketa, berez, erabilgarria izan daiteke aditz horiek ikasteko. Baina kontuan hartu behar da ikasleek aginteraren inguruan duten ezagutza oso mugatua dela, eta ariketa horretan bat-batean kontzeptu berri asko pilatzen dira: aginteraren eraketa, ezezko aginterak, aspektuaren erabilera, etab. Gainera, ez da inolako azalpenik ematen ariketa baino lehen.

Lehen aipatu dudan bezala, mugimenduzko aditzen agintera ez da lantzen A2 liburuan. Gai honen inguruan egiten den bakarra zera da: aditz-jokoa ikasterakoan, agintera forma ere idaztea. Hona hemen adibide bat:

**ЗАДАНИЕ 435. Лететь или летать?**

**а) Напишите формы глаголов.**

→ ЛЕТ É  ТЬ (II, я: ч)		⇔ ЛЕТÁ ТЬ (I)	
я _____	мы _____	я _____	мы _____
ты _____	вы _____	ты _____	вы _____
он / она _____	они _____	он / она _____	они _____
past: _____		_____	
imperative: _____		_____	

Oso ondo iruditzen zait ikasleek aditz-jokoa ikasteen orainaldia, iragana eta agintera idaztea. Arazoa da ariketetan orainaldia eta iragana baino ez dutela erabili behar. Hortaz, ikasleek ez dute aginteraren forma erabiltzen ikasten, eta zoritxarrez ahaztu egiten dute.

B1 liburuaren hasieran, 45. gaian, aurreko liburuetan landutako mugimenduzko aditzak gogoratzen dira (идти/ходить, ехать/ездить eta лететь/летать). Aditz horien aditz-jokoa birpasatzeko 2 ariketa daude. Oso lagungarriak direla uste dut, baina ariketetan ez da mugimenduzko aditzen aginterazko formarik agertzen.



Birpaso horren ostean, aditz pare berriak irakasten dira: бежать/бегать eta плыть/плавать. Aditz horien aditz-jokoa ikasteko, taula batzuk bete behar dituzte eta taula horietan agintera forma ere idatzi behar dute. Taulen ostean, ariketa ugari daude aditzak ikasteko. Ariketa gehienetan aspektua eta orainaldiko edo iraganeko aditz-jokoa lantzen da, baina badago agintera zehazki lantzen duen ariketa bat. Hau da beraz, 5 элементов liburuetan mugimenduzko aditzen agintera lantzeko agertzen den lehenengo ariketa.

### ЗАДАНИЕ 117. Напишите глаголы в императиве.

Модель: Нина Ивановна, (бегать) \_\_\_\_\_ каждое утро, это хорошо для здоровья!  
→ Нина Ивановна, **бегайте** каждое утро, это хорошо для здоровья!

1. Дедушка, (ездить) \_\_\_\_\_ на «Волге», она лучше, чем «Лада»!
2. Девочка, (бежать) \_\_\_\_\_ назад! Здесь опасно!
3. Дети, всегда (ходить) \_\_\_\_\_ в это кафе, здесь готовят вкуснее!
4. Наташка, (плыть) \_\_\_\_\_ сюда! Здесь вода теплее!
5. Сынóк, не (ездить) \_\_\_\_\_ так быстро на мотоцикле!
6. Дети, не (плавать) \_\_\_\_\_ в реке, вода ещё слишком холодная!
7. Оля, (идти) \_\_\_\_\_ быстрее сюда!
8. Соседи, (бежать) \_\_\_\_\_ в милицию, у вас дома был вор!
9. Родители, (идти) \_\_\_\_\_ домой, вас там ждут дети!
10. Спортсмены, не (бегать) \_\_\_\_\_ в этом районе, здесь очень грязный воздух!
11. Малыш, (идти) \_\_\_\_\_ ко мне! Не плачь!

Ikus dezakegunez, parentesi artean ematen zaio erabili beharreko aditza eta ikasleak bigarren pertsonako aginteran idatzi behar du. Esaldi gehienak aginduak edo eskaera puntualak dira, baina badaude ezezko agintera duten zenbait esaldi. Kasu horietan esaldiek debeku izaera edo ohartarazpen balioa dute.

Ariketa, beraz, ez dago gaizki, baina arazoa da ariketaren aurretik ez dagoela inolako azalpenik. Ariketa hau baino lehen mugimenduzko aditzen agintera behin bakarrik ageri da: aditz-jokoak ikasteko tauletan. Baina taula horietan aginteraren forma soilik adierazten da, ez da inolako azalpenik ematen erabilerari buruz edo aditzen berezitasunei buruz. Ez da esaten, adibidez, aginteraren barnean bi mota daudela: baiezko agintera eta ezezko agintera. Hori aipatu beharra dago aurrizkirik gabeko aditzen kasuetan *aktionsart* desberdinak erabili behar direlako, baina biak forma burutugabeak. Gainera, ez da inon aipatzen ezezko aginteran bigarren imperfektiboa jarri behar dugunik.

Argi dago ariketaren helburua bigarren pertsonako aginteraren eraketa irakastea dela. Izan ere, ez zaio garrantzi handirik ematen aginteraren esanahiari eta erabilerari. Ariketa, beraz, aginteraren ezaugarri orokorrak ikasteko baliagarria da, baina ez da nahikoa gai hau guztiz ulertzeko eta menderatzeko, azalpenak falta baitira.

Ariketa hau da mugimenduzko aditzen agintera lantzen duen lehenengo eta azkenengo ariketa. Liburuan zehar, badaude agintera lantzeko beste ariketa batzuk eta mugimenduzko aditzak ikasten jarraitzeko beste ariketa batzuk, baina ez dira bi gramatika atal hauek batzen. Mugimenduzko aditzei dagokionez, azpimarragarriena 57. gaian dago, bertan нести/носить eta везти/возить aditz iragankorrak irakasten baitira.

Aginterari dagokionez, 51. gaian lantzen jarraitzen da, honako aditz hauekin: лить, пить, класть, положить, вставать, садиться eta ложиться. Dena den, agintera ez da sakonago aztertzen 55. gaira arte. Gai horretan (215. orrialdean) aginteraren azalpen labur bat dakarki liburuak:

<b>ИМПЕРАТИВ</b> (Imperative)			
ТЫ	ВЫ	МЫ	ОН / ОНА / ОНИ
Пиш й! Копир у й! Построй! Приготов ь!	+ -ТЕ	Давай(те) делай(те) это! Давай(те) сделаем это!	Пусть он (с)делает это!
<b>-И</b> <b>-Й /-Ь</b>			
<b>Не пиши(те)! Давай(те) не будем делай(те) это! Пусть он не делай(те) это!</b> не + imperf. ↔ Я не хочу, чтобы ты / он / мы делал(и) это.			

Azalpenean adibideak erabiltzen dira baiezko eta ezezko agintera laburtzeko. Ikus dezakegunez, bigarren pertsonako agintera ez ezik, bi mekanismo alternatibo ere azaltzen dira: давай eta пусть. Nire ustez, irakasleak azalpen eskematiko hori osatu beharko du, agintera mota bakoitza noiz erabili behar den azalduz.

Teoria hau lantzeko, ariketa ugari daude: agintera eratzeko, esaldiak osatzeko, ezezko agintera lantzeko, etab. Azpimarragarria da 217. orrialdean dagoen ariketa (задание 287). Izan ere, ariketa horretan lantzen da lehenengo aldiz aginteraren aspektua. Ariketa baino lehen adibide batzuk eskaintzen dira. Adibide horien bidez erakusten zaio ikasleari aspektuen erabileraren arteko bereizketa.

Laburbilduz, 55. gaian ikasleek aginteraren eraketa eta erabilera ikasten dute ariketen bitartez, baina ariketetan ez dira mugimenduzko aditzak lantzen. Zehazki, ariketetan agertzen diren mugimenduzko aditz bakarrak *идти* eta *ходить* dira. Ziurrenik aditzik erabilienak direlako. Baina ez dugu ahaztu behar mugimenduzko aditzak askoz gehiago direla eta errusiarrek egunero erabiltzen dituztela. Horregatik uste dut gai honen barruan komenigarria izango zela mugimenduzko zenbait aditz lantzen hastea ere, adibidez: *ехать/ездить, нести/носить, бежать/бегать*, etab.

Behin liburu osoa aztertuta, konpara ditzagun liburuak eskaintzen dituen gaiak eta nik aurreko atalean proposatu ditudanak, ikusteko zer jorratzen den eta zer dagoen faltan:

Aginterari dagokionez:

- Bigarren pertsonako aginteraren eraketa.
  - Arau orokorrak lantzen dira A1 liburuan eta arauak sakontzen dira B1 liburuaren bukaeran.
  - Salbuespen oso gutxi lantzen dira, batez ere: *будь/те* eta *ешь(те)*. Beraz, argi dago zati honetan hutsune bat dagoela eta salbuespen gehiago barneratu behar direla: *ляг(те), дай(те), пей(те)*...
- Bigarren pertsonako aginteraren erabilera.
  - Baiezko agintera A1 liburuan lantzen da eta ezezko agintera agertzen da lehenengo aldiz A2 liburuan baina inolako azalpenik gabe. Zalantzarik gabe, falta da azalpen bat baiezko eta ezezko aginterari buruz. Azalpen honetan nik azpimarratuko nuke ezezko aginterak aditz burutugabeekin doanean, esaldiak debeku izaera duela eta aditz burutuekin doanean, ohartarazpen balioa.
- Mekanismo alternatiboak.
  - Hauek lantzen dira: *давай(те)* (A1) eta *нужь* (B1). B1 mailan, ezinbestekoa iruditzen zait beste mekanismo alternatibo bat gehitzea: lehenengo pertsona plurala, asko erabiltzen baita.

Mugimenduzko aditzei dagokionez.

- Oinarrizko kontzeptuak lantzen dira: A1 liburuan aurrizkirik gabe aditzen bi *aktionsart*-en arteko ezberdintasunak azaltzen dira eta maila igo ahala aurrizkiak ikasten dira mugimenduzko aditzen forma burutu gisa.
- Orainaldia eta iragana oso ondo lantzen dira hiru liburuetan zehar.
- Mugimenduzko aditzen agintera ez da berez lantzen. Ariketa bakarra dago honen inguruan eta ez du inolako azalpenik. Falta dira, beraz, mugimenduzko aditzen aginterarekin zerikusia duten puntu gehienak: kontsonante alternantzia, salbuespenak eta baiezko vs ezezko agintera, bai aurrizkirik gabeko aditzekin, bai aurrizkidun aditzekin.

Laburbilduz, 5 элементов liburuetan agintera eta mugimenduzko aditzak gradualki irakasten dira; maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta zehatzagoa da gramatika. Nire ustez, mugimenduzko aditzak nahiko ondo irakasten dira, hasieratik azalpen eta ariketa asko daudelako gaia menderatzeko. Agintera, aldiz, oso gutxi lantzen da; are gehiago, B1 liburuaren amaierara arte ez da behar bezala lantzen. Bi atal horiek bananduta irakatsi arren, ez dira bi atalak batzen, eta beraz, ikasleek ez dute mugimenduzko aditzen agintera ikasiko. Gai honen inguruan ariketa bat baino ez dago, eta ikusi dugun bezala, pobre xamarra da.


Zalantzarik gabe, eskuliburu hauek erabiltzea erabakitzen duten irakasleek mugimenduzko aditzen agintera irakasteko kanpo baliabideak bilatu eta prestatu beharko dituzte.

### 5.1.2 Поехали

Orain Поехали! eskuliburua aztertuko dut. Liburu honek bi atal ditu: Поехали! 1 (A1) eta Поехали! 2 (A2). Azken liburu hau bi zatitan banatuta dago. Nire ustez, Поехали! errusiera irakasteko eskuliburu nahiko ona da, informazio osatua ematen duelako bai hiztegiaren aldetik, bai gramatikaren aldetik. Alfabeto zirilikoa eta ahoskera irakasten hasten da eta orriak igaro ahala hizkuntzaren oinarriak lantzen dira gradualki. Liburuak azalpen, adibide, argazki eta ariketa asko ditu, ikasleek gramatika eta hiztegia ondo mendera ditzaten. Gainera, ariketen aurretik, azalpen-taulak ageri ohi dira. Nik esango nuke hori dela liburu honek duen abantaila garrantzitsuena; hala, zalantzarik sortuz gero, ikasleak badu nora jo.


Lehenengo liburuan (A1) ez dugu aurkituko mugimenduzko aditzen agintera lantzen duen ariketarik. Bi gramatika puntu horiek bereizita irakasten dira maila baxuegia delako. Mugimenduzko aditzak 18. eta 19. gaietan irakasten dira. Bi aditz pare irakasten dira aldi berean: идти/ходить eta ехать/ездить. 18. gaian aditz horien orainaldia irakasten da eta 19. gaian iragana. Ez da, beraz, mugimenduzko aditz horien agintera formarik lantzen.

Aditz arrunten agintera geroago lantzen da. Zehazki, 27. gai osoa (218.-222. or) aginterari buruzkoa da. Gai horretan bigarren pertsonako baiezko eta ezezko agintera irakasten dira, eta horiekin batera zenbait aditzek jasotzen dituzten aldaketak azpimarratzen dira (adibidez: сказать > скажи/ите). Gramatika atal hau lantzeko ariketa ugari daude. Hona hemen adibide bat:




Ariketa honetan ikasleek ezezko agintera sortu behar dute emandako esaldian oinarrituta. Ariketa nahiko errepikakorra da, baina azken finean, edozein gramatika menderatzeko, ezinbestekoa da behin eta berriz errepikatzea. Errepikapenen bitartez gramatika automatizatzen dugulako eta gero pixkanaka-pixkanaka gure hizkeran erabiltzen hasten garelako.

Bigarren pertsonako agintera irakasteaz gain, bi mekanismo alternatibo irakasten dira: давай(те) eta пусть. Давай(те) mekanismoa erabiltzeko bi modurik ohikoenak irakasten dira: давай(те) gehi infinitibo burutugabea eta давай(те) gehi aditz burutuaren lehenengo pertsona plurala.



Hurrengo liburuan (Поехали! 2.I.), mugimenduzko aditzak eta agintera lantzen jarraitzen da. 5. gaian (48-56 or.), ийти/ходить eta ехать/ездить aditzak birpasatu eta sakondu egiten dira. Zehazki, aditz pare bakoitzaren bi *aktionsart*-en arteko desberdintasunak irakasten dira. Horrez gain, ariketen bitartez mugimenduzko aditz hauen agintera irakasten da. Lehenengo eta behin, bigarren pertsonako agintera irakasten da:



Ikus dezakegunez, azalpenak bi zati ditu. Alde batetik, aginteraren funtzioa agertzen da: aholkuak ematea. Eta bestetik, adibideak ematen dira. Adibideak lagungarriak izan arren, ez dira nahikoak gramatika atal hau ulertzeko. Badirudi azalpenaren helburua ez dela mugimenduzko aditzen agintera sakon lantzea, baizik eta, ikasleek иди eta ходи agintera formak buruz ikastea: baiezko aginteran иди forma eta ezezko aginteran ходи forma. Baina gai hau sakonago landu beharko litzateke, orain arte aditz arruntekin forma burutua eta burutugabearen kontrastea landu dutelako, baina aurrizkirik gabeko mugimenduzko aditzekin bi *aktionsart*-en arteko kontrastea ere ikasi beharko dutelako. Dena den, ez da honi buruzko azalpenik ageri, maila oraindik oso baxua delako eta mugimenduzko aditzen agintera zehatz-mehatz lantzeko errusieraren ezagutza altuagoa behar delako.

Azalpen labur horren ostean, ariketak daude teoria hori lantzeko. Aipagarria da, ariketa batean beste agintera forma berri bat irakasten dela: давай(те) + пойдём.

## Задание 9


### НАДО УМЕТЬ ГОВОРИТЬ «НЕТ»!

Составьте диалоги по модели:

- Давай(те) пойдём в кино!
- Не хочу в кино, там темно. Пойдём лучше в бассейн!

Роль 1. У вас выходной. Решите, куда вы хотите пойти. Пригласите друг друга.

Роль 2. Объясните, почему вы не хотите. Предложите альтернативу.



Gai berri hau azaltzeko, adibide bakarra eskaintzen da. Adibide horretan oinarrituz, ikasleek esaldiak sortu behar dituzte elkarrizketa laburrak egiteko. Argi dago ariketa horren helburua, ez dela mekanismo hori azaltzea, baizik eta ikasleek давай(те) пойдём forma ezagutzea eta buruz ikastea. Nire ustez, ariketa hau ez da egokia hainbat arrazoi direla eta: ez da azalpen argirik ematen ariketa baino lehen, ikasleek oraindik ez dituzte mugimenduzko aurrizkidun aditzak ikasi, eta gainera maila oso baxua dute gaia ondo ulertu ahal izateko.

Liburuan zehar mugimenduzko aditzak ikasten jarraitzen da. 8. gaian adibidez, mugimenduzko aditz iragankor batzuk irakasten dira: нести/носить, везти/возить eta вести/ водить. Baina aditz pare horien orainaldia eta iragana soilik irakasten da.

Agintera arruntari dagokionez, 10. gaian topatuko dugu (105-106. or.). Gai honetan azaltzen da zer nolako bukaera erabili behar den bigarren pertsonako agintera eratzeke: -и/-ите, -й/ -йте edo -ь/-ьте. Azalpena laburra da, baina lagungarria izan daiteke eta ariketak aproposak dira ikasitakoa praktikan jartzeko.

Aipatzekoa da, 11. gaian (119. orrialdetik aurrera) aginteraren aspektuaren erabilera ere lantzen dela. Agintera egitean, ikasleak jakin dezan aditz burutuak eta burutugabeak noiz

erabili behar diren. Azalpena hiru taulez osatuta dago. Lehenengoan gehien erabiltzen diren aditzen adibideak ageri dira, aginterako forma jada osatuta. Ondoren, bi taula ematen dira aspektu burutua eta burutugabea azaltzeko. Tauletan ikasitakoa praktikatzeko bi ariketa daude, aspektu bakoitza bere aldetik lantzeko ariketa bana. Nolanahi ere, nire ustez, bi aspektuen arteko desberdintasunak benetan barneratzeko, ezinbestekoa da bi aspektuak nahastuta ageri diren ariketaren bat egitea.

Laburbilduz, hauek dira Поехали! liburuetan lantzen diren alderdiak eta topatu ditudan hutsuneak:

Aginterari dagokionez:

- A1 liburuan bigarren pertsonako agintera eratzeko arauak irakasten dira eta A2 liburuan arau horiek birpasatzen dira. Gainera, bi liburuetan garrantzia handia ematen zaio kontsonante alternantziari eta hainbat kasu irakasten dira: *сказать > скажи/ите, показать > покажи(те)* etb. Atal honetan ikusten dudana hutsunea zera da: salbuespenak irakastea. Izan ere, salbuespen bakarra agertzen da: *дай(те)*.
- Bigarren pertsonako aginteraren erabilerak:
  - Baiezko agintera nahiko sakon lantzen da A1 liburuan baina ezezko agintera ez da inon azaltzen, ariketetan soilik agertzen da. Beraz, ezezko aginterari buruzko azalpena falta da. Azalpen hau garrantzi handikoa dela uste dut.
  - Maila baxuko liburua izan arren, A2 liburuan aginteraren aspektua lantzen da, hau da, aditz burutuen eta burutugabeen arteko ezberdintasuna azaltzen da. Aspektu bakoitza bere aldetik lantzeko ariketa bana dago. Hortaz, falta da bi aspektuak nahasten dituen ariketa bat
- Aginteraren mekanismo alternatiboak: A1 liburuan bi mekanismo alternatibo irakasten dira: *дай(те)* eta *нужь*. Ondo iruditzen zait bi horiek irakastea, azken finean gehien erabiltzen diren mekanismoak direlako.



Mugimenduzko aditzak:

- A1 liburuan azaldu egiten da mugimenduzko aditzak bi *aktionsart* dituztela baina bien arteko ezberdintasuna ez da zehatz mehatz azaltzen A2 liburura arte. Nik uste dut azalpen hori aurreratu beharko litzatekeela, ikasleak ondo ulertu ahal izateko mugimenduzko aditzen berezitasun garrantzitsu hau.
- Mugimenduzko aditzen aditz-jokoa nahiko ondo lantzen da bi liburuetan, bai iragana bai orainaldia.

Mugimenduzko aditzen agintera:

- Ez dago azalpen zehatz bat mugimenduzko aditzen aginterari buruz. Beraz, ez da mugimenduzko aditzen aginteraren eraketa, ez kontsonante alternantzia, ez salbuespenik azaltzen. Guzti hau ezinbestekoa da eta azalpen luze xamarra merezi du.
- Gai honi buruz agertzen den bakarra A2 liburuan dago: *udu* eta *xodu* agintera formak. Forma hauek irakasterakoan, adierazten da baiezko aginteran *udu* forma erabiltzen dela eta ezezko aginteran *xodu* forma, baina ez da zergatia azaltzen. Hori da, hain zuzen ere, bete beharreko hutsune larri bat.
- Mekanismo alternatiboei dagokienez, A2 liburuan egitura hau irakasten da: *давай(ме) + пойдём*. Baina ariketa ez da batere aproposa lehen aipatu ditudan arrazoiengatik.

Laburbilduz, *Поехали!* liburuak mugimenduzko aditzak eta agintera pixkanaka irakasten ditu, eta gainera bi gramatika atal horiek batzen dituzten ariketak eta azalpenak eskaintzen ditu. Egitura, beraz, ondo planteatuta dago, baina guri interesatzen zaigun gaia azaletik soilik lantzen da. Gainera, azalpenak oso eskematikoak eta laburrak dira eta ariketa asko ez dira aproposak maila honetarako. Esan daiteke, beraz, ez dela nahikoa eskuliburu honek eskaintzen diguna. Baina, aurreko eskuliburuekin alderatuz, gutxienez mugimenduzko aditzen agintera pixka bat lantzen da.

## 5.2 Eskuliburu espezifikoak

Atal honetan, mugimenduzko aditzei buruzko liburu espezifikoak aztertuko ditut. Gramatikaren alderdi hori soilik jorratzen dutenez, eskuliburu orokorrak baino askoz sakonagoak dira. Mugimenduzko aditzak errusieraren alderdi korapilatsua eta ezaguna direnez, liburu espezifiko asko aurki ditzakegu. Dena den, nik soilik 4 liburu aztertuko ditut:

*Изучаем Русские Глаголы Движения, Приходите! Приезжайте! Прилетайте!, Идти или Ходить?*, eta *Verbos de movimientos rusos*. Liburu hauek hautatu ditut nahiko ezagunak direlako eta nik neuk ikaslea nintzenean erabili nituelako.

### 5.2.1 Изучаем Русские Глаголы Движения

Liburu hau errusiera atzerriko hizkuntza gisa irakasten dutenei zuzenduta dago, baina gainerako eskuliburuak ez bezala, Armeniako eskoletan erabiltzeko diseinatuta dago. Hortaz, errusieraren eta armenieraren arteko konparazioa egiten du.

Eskuliburuak mugimenduzko aditzak irakasteko materiala eskaintzen du. Zehazki, zortzi mugimendu-aditz pare lantzen ditu, eremu soziokulturalean, hezkuntza-arloan eta enpresa-arloan gehien erabiltzen direnak, bai eta fikzioan eta kazetaritzan ere.

Gai hau lantzeko liburuak azalpen eta ariketa ugari eskaintzen ditu. Azalpenak oso egokiak dira Armeniako ikasleentzat, bi hizkuntzen arteko ezberdintasunak azpimarratzen eta azaltzen dituelako. Gainera, azalpenak sakonak dira, adibide ugari dituzte eta mugimenduzko aditzen alderdi asko lantzen dira: aditz-jokoak, aurrizkiak, aditz bakoitzak erabili ohi dituen preposizioak, zentzu figuratiboak, etab. Ariketei dagokionez, askotarikoak dira eta haur txikientzat eginak daudela nabaritzen da, gai dibertigarriak jorratzen dituztelako eta haurrentzako marrazki bizidunak agertzen direlako. Hona hemen adibide bat:

28. а) Прочитайте текст.

### ЗАЯЦ И БЕЛКА



Однажды заяц спросил белку:  
Не могу понять, ты птица или зверь?  
- И птица, и зверь, - ответила белка.  
- Я умею летать, как птица, бегать, как зверь  
и плавать, как рыба. А что ты умеешь?  
- Я умею только бегать, - ответил заяц и  
попросил, - покажи, как ты бегаешь.

Белка побежала. Она бежала с трудом, потому что бегала очень плохо. Летала и плавала белка тоже плохо, но сказала:

- Я умею и ходить, и бегать, и плавать, и летать.  
Я и зверь, и птица, и рыба. А ты, заяц, умеешь  
только бегать.

- Лучше делать одно дело, но хорошо, чем  
много, но плохо, - ответил заяц.



б) Выпишите из текста все глаголы движения и спрягайте их.

в) Согласны ли вы с выражением “Лучше делать одно дело, но хорошо, чем много, но плохо”?

Zalantzarik gabe, onartu behar dut eskuliburu nahiko osoa dela, jorratzen dituen atalak oso argi azaltzen dituelako eta ariketak entretenigarriak eta baliogarriak direlako. Dena den, badu hutsune nabari bat: ez du behar bezala lantzen mugimenduzko aditzen agintera. Gai hau behin baino ez da aipatzen, gramatikako lehen tauletan.

Таблица 1

Настоящее время	Прошедшее время	Императив
<b>Идти</b> я иду ты идешь они идут	шел, шла, шли	иди! идите!
<b>Ехать</b> я еду ты едешь они едут	ехал, ехала, ехали	—






Ikus dezakegunez, taulak 3 zutabe ditu: orainaldia, iragana eta agintera. Taula eskematikoa eta erraz ulertzeko modukoa da, baina hainbat hutsune ditu. Hasteko ехать aditzari dagokion zutabeaz ez dago aginterazko formarik, ez delako forma hori existitzen. Baina beste forma bat erabil dezakegu horren ordeaz: поезжай(те). Zalantzarik gabe, forma hori taulan ageri beharko litzateke. Horrez gain, nire ustez ezezko aginterazko formak ere sartu beharko litzateke taulan (не ходи eta не езд), ikasleek ikus dezaten

ezezko aginterarekin norabide bakarreko *aktionsart*-ak erabiltzen direla. Informazio falta egoteaz gain, taularen ondorengo ariketetan ez da inon agintera lantzen. Ariketa guztiak oraina eta iragana ikasteko dira. Ez dago gure gaia jorratzen duen ariketa bakar bat ere.

Suposatzen dut ez dagoela inolako ariketarik honen inguruan, maila baxua delako, eta oraindik ez dutelako gai hau sakondu nahi. Nahiz eta ariketak ez egon, ezinbestekoa iruditzen zait taulen informazio falta konpontzea, geroago ikasleek mugimenduzko aditzen agintera lantzerakoan oinarri teoriko minimo bat ezagutzeko.

### 5.2.2 Приходите! Приезжайте! Прилетайте!

Liburu hau mugimenduzko aditzak ikasten ari direnei zuzenduta dago (A2-B1 maila). Liburua nahiko laburra da, errusieraz idatzirik dago eta azalpen, irudi eta ariketa asko ditu. Azalpen guztiak taulatan jasota daude, ikasleek teoria begirada azkar batekin ulertu eta barneratu ahal izateko. Hona hemen lehenengo taula adibide gisa:

Глаголы группы ИДТИ →		Глаголы группы ХОДИТЬ ←
Идти		Ходить
Бежать		Бегать
Ехать		Ездить
Лететь		Летать
Плыть		Плывать

Ikus dezakegunez, taulan norabide bakarreko eta norabide anitzeko mugimendu ohikoak jasotzen dira era eskematiko batean. Taula hain da soila eta marrazkiak hain dira sinpleak, ezen askoz errazagoa den aditz horiek ikastea.

Behin aditzen esanahia ulertuta, aditz-jokoak irakasten dira bi taulen bitartez. Taula bat norabide bakarreko aditzei zuzenduta dago, eta bestea norabide anitzeko aditzei. Taula bakoitzean, aditzen orainaldia eta iragana irakasten dira.

Ondoren, beste taula bat dago bi *aktionsart-en* arteko ezberdintasuna azaltzeko. Taula hori bereziki lagungarria izan daiteke atzerriko ikasleentzat, arazo asko sortzen duen gaia delako. Behin *aktionsart*-ei buruzko ariketak eginda, aurrizkiak azaltzen dira. Lehenengo eta behin aurrizkien esanahi nagusia azaltzen da irudien bitartez, eta ondoren beste taula batean aurrizkiak banan-banan sakontzen dira. Azalpen guzti horien ostean, ariketak daude ikasitakoa praktikan jartzeko. Ariketa guztiek egitura bera dute: esaldi bat ageri da hutsune batekin eta ikasleak hutsunea bete behar du. Hutsunea betetzeko bi aukera ezberdin ematen dira eta ikasleak bat bakarrik hautatu behar du.

Ariketa horien ostean, liburuak berriz teoriari heltzen dio eta mugimenduzko aditzen beste ezaugarri batzuk azaltzen ditu. Liburuan zehar alderdi asko landu arren, ez da mugimenduzko aditzen agintera irakasten. Ez da hitz bakar bat ere esaten inperatiboari buruz. Ariketa batzuetan agintera solteak ageri dira, baina ez da aginteraren inguruko azalpenik eskaintzen.

Harrigarria da liburuaren izenburuan aginterazko formak agertzea (Приходите! Приезжайте! Прилетайте!) eta gai honi buruz ezer ez esatea. Oso larria iruditzen zait honelako liburu espezifikoko batek hutsune hain nabaria izatea. Zoritxarrez, ez da honetaz hitz egiten ez duen liburu bakarra.

### 5.2.3 Идти или Ходить?

Eskuliburu espezifikoko honek mugimenduzko aditzen bi *aktionsart-en* arteko desberdintasunak azaltzea du helburu. Horregatik, hain zuzen ere, “oinez joan” aditzaren bi *aktionsart*-ak ditu izenburuan. Aditz pare horretatik hasi arren, liburuan zehar mugimenduzko aditz gehiago lantzen dira.

Liburuak gramatika atal hori zehatz-mehatz azaltzen du eta ariketa asko eskaintzen ditu teoria ulertzeko. Ariketa gehienetan ikasleak *aktionsart*-a aukeratu eta jokatu behar du denbora egokian.

Liburuan ez dago aginterarik, ez azalpenetan, ez adibidetan, ezta ariketetan ere. Eskuliburu honek, beraz, ez digu balio gure gaia irakasteko.

#### 5.2.4 Verbos de movimientos rusos tablas y ejercicios

Liburu hau gaztelania ama hizkuntza gisa duten errusiera ikasleentzat, A1-A2 mailetan daudenentzat, dago diseinatuta. Helburu nagusia mugimenduzko aditzen oinarriak irakastea da, galdera hauei erantzuteko: zer dira mugimenduzko aditzak, nola erabiltzen dira, zergatik daude bi infinitibo esanahi bera adierazteko, etab.

Liburuan azalpenak gazteleraz ematen dira eta ariketa ugari eskaintzen dira teoria ondo barneratzeko. Nik neuk errusiera ikasten hasi nintzenean, arazo asko izan nituen mugimenduzko aditzekin. Baina liburu honi esker, gai hau ulertu ahal izan nuen eta gainera zalantza asko argitu nituen.

Nire ustez, liburu oso ona da, batez ere ama-hizkuntza gisa gaztelania dutenentzat. Dena den, hain maila baxua duenez, aditzen orainaldia eta iragana soilik lantzen da. Ez da inon aipatzen agintera.

Laburbilduz, eskuliburu ona da mugimenduzko aditzak ikasten hasteko, baina gure gaia lantzeko ez digu balio.

### 5.3 Gramatika praktikoak

Gramatika praktikoak, hizkuntza baten gramatika azaltzen duten liburuak dira. Eskuliburuek ez bezala, gramatika barneratzeko ariketak eskaintzen dituzte. Aztertu ditudanak honelako liburuak *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* eta *Чистая Грамматика*

#### 5.3.1 Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях

Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях liburuak B2-C1 mailetako gramatika eskaintzen du. Bi liburutan banatua dago: *Морфология* eta *Синтаксис*. Guri interesatzen zaiguna, eta beraz, orain aztertuko dudana liburuaren lehenengoa da, hots, morfologiari buruzkoa.

*Морфология* liburuak zazpi atal ditu. Atal bakoitzean azalpen gramatikalak eta ariketak eskaintzen dira, eta gainera, atalaren amaieran birpatsatzeko ariketak ere badaude. Liburu honek badu berezitasun bat: ariketen aurretik azalpenak emateaz gain, ariketetan bertan gainerako azalpenak sartzen ditu.

Liburuaren azken atalean, aditza lantzen da: aditz-jokoak, aditz denborak, aspektua, etab. Beraz, hor aurkituko ditugu mugimenduzko aditzei eta aginterari buruzko ariketak. Zehazki, gure gaia lantzen hasten da 318. orrialdean eta guztira 6 ariketa daude. Atal horren hasieran ez da inolako azalpenik ematen; zuzenean ariketak daude. Ematen diren azalpen bakarrak ariketetan txertatuta daude ohar gisa. Ariketak nolakoak diren ikusteko, lehenengo bi ariketak aztertuko ditut.

Hona hemen lehenengo ariketaren lehenengo atala (a):

**603.** Прочитайте предложения. Определите значение выделенных глаголов движения. Назовите инфинитивы, от которых они образованы.

а) 1. *Иди быстрее*, мы опаздываем. *Не ходи* сегодня на занятия, у тебя температура; 2. *Беги* осторожно, ты можешь упасть. *Не бегайте* по комнате: бабушка спит; 3. *Поезжайте\** за этой красной машиной; 4. Если нет прямого рейса, *летите* через Лондон или через Гамбург. *Летайте* самолётами Аэрофлота! 5. *Плыви* к берегу. Больше *плавайте*, это полезно; 6. *Не броди* по комнате, как тень, лучше сядь; 7. *Не лезь* в чужие дела, занимайся своими. *Не лазай* на дерево, ты можешь упасть; 8. *Ползи* осторожно! *Не ползай* на колёнях, испачкаешься!

\* От глаголов *ехать/ездить* образуется форма императива *поезжайте*, *не надо ехать (ездить)*. Все остальные варианты в литературном языке не употребляются. От глагола *брести* императив не употребляется.

Ikus dezakegunez, azalpen txiki bat dago *ехать* aditzaren inguruan, zaila suerta daitekeelako atzerriko ikasleentzat. Izan ere, aditz honek ez ditu arau orokorrak jarraitzen, salbuespen bat baita: *поезжай(те)*. Ariketa berean, б) atalean, beste azalpen txiki bat eskaintzen da *aktionsart*-ei buruz:

б) 1. Если ты нашёл мою ручку, *неси* её сюда. *Не носите* мне документы на подпись, я сам к вам зайду; 2. *Веди* машину осторожно. *Не води* собаку на коротком поводке, ей надо погулять; 3. *Вези* коляску по тротуару, а не по дороге. *Не вози* с собой документы, ты можешь их потерять; 4. *Не тащи* по земле сумку. *Не таскай* из вазы конфеты, скоро будем обедать; 5. *Не гони* кошку на улицу, дай ей сначала поест. *Не гоняй* мяч целый день, займись делом! 6. Не тащи по земле сумку, а *кати* её на колёсах! *Не катай* по столу шарики из хлеба, это плохая привычка!

! При указании на объект единичного движения употребляются императивы глаголов однонаправленного движения. В сочетании с отрицательной частицей не чаще употребляются императивы глаголов разнонаправленного движения. Сравните: *иди в театр* – *не ходи в театр*.

Azalpen horretan adierazten da noiz erabili ohi den norabide bakarreko forma eta noiz norabide anitzekoa. Azalpenak argi adierazten du baiezko aginteran norabide bakarreko forma erabili behar dela eta ezezko aginteran, berriz, norabide anitzekoa. Azalpena ez da oso sakona, baina argia eta baliagarria da.

Bi karratu hauek dira, hain zuzen ere, aurreko eskuliburuetan falta ziren azalpenak: *exatъ* aditzaren aginterazko forma eta baiezko eta ezezko aginteraren eraketa aurrizki gabeko mugimenduzko aditzekin. Eskuliburuetan ariketak zeuden gai hauek lantzeko, baina azalpenik gabe. Gramatika liburu hau, beraz, osoagoa da biak eskaintzen dituelako, bai azalpenak, bai ariketak.

Hurrengo ariketa hutsuneak betetzean datza. Horretarako, ikasleak bi aditzen artean aukeratu behar du, eta aukeratutakoa aginterazko forman jarri.

**604.** *Вместо точек вставьте необходимый по смыслу глагол движения в форме императива. Объясните ваш выбор. Укажите варианты.*

1. Не ... воду в железном ведре, возьми лучше пластмассовое, оно легче. ... мне свою тетрадь, я проверю твоё домашнее задание (*нести/носить*); 2. Через улицу ... осторожно, не попади под машину. Не ... одна вечером по улице, в нашем городе это небезопасно (*идти/ходить*); 3. Не ... под дождём: промокнешь. Не ... очень быстро, я не успеваю (*бежать/бегать*); 4. Не ... в облаках, спустись на землю, посмотри, что происходит вокруг тебя. ... изо всех сил и предупреди его (*лететь/летать*); 5. ... на метро: так быстрее. Не ... на поезде, ты потеряешь много времени (*ехать/ездить*); 6. Лучше ты ... машину: я что-то устал сегодня. Не ... детей в музеи, в которых они всё равно ничего не поймут (*вести/водить*); 7. Больше ... на спине, врачи сказали, что тебе это полезно. ... вон за той лодкой: в ней я оставила наш мяч (*плыть/плавать*); 8. Маленькие вещи ... с собой в салоне самолёта, а большие сдайте в багаж. Никогда не ... с собой слишком много вещей (*везти/возить*); 9. Никогда не ... ко мне в стол и не трогай мои бумаги. Стой! Не ... в эту пещеру, ты можешь заблудиться (*лезть/лазать*); 10. Не ... по берегу, собирая ракушки, мы сможем купить их в магазине. Ложись на живот и ... , может быть, в высокой траве тебя не заметят (*ползти/ползать*).

Ariketa hau asko gustatzen zait, aginteraren eraketa ikasteaz gain, bi *aktionsart*-en arteko desberdintasunak lantzen dituelako. Dena den, nabaria da ariketa hau maila altuagoa duten ikasleei zuzenduta dagoela. Azken finean, gai hau ulertzeko eta ariketa ondo egin ahal izateko, ezinbestekoa da errusierazko maila ertaina edo altua izatea.

Nolanahi ere, ariketa hobetu daiteke, ez baitago inolako azalpenik. Suposatzen da ikasleek maila honetan badakitela teoria, eta horregatik ez da ez azalpenik ez adibiderik



ematen. Baina, nire ustez, azalpen labur bat txertatu beharko genuke ariketa baino lehen, gramatika atala birpasatzeko, eta batez ere bi *aktionsart*-en arteko desberdintasunak argi gera daitezzen.

Orokorrean uste dut gramatika praktikoa honek eskaintzen dizkigun ariketak eta azalpenak oso lagungarriak direla teoria barneratzeko. Dena den, gomendagarria iruditzen zait ariketekin hasi aurretik, irakasleak ahozko azalpen bat ematea oroigarri modura.

### 5.3.2 Чистая Грамматика

Liburu hau errusierazko gramatika ikasi edo birpasatu nahi duten ikasle atzerritarrei zuzenduta dago. Maila nahiko altuko liburua da, liburua B1, B2 eta C1 mailak lortu nahi dituzten ikasleei zuzenduta dago. Liburu honetan errusiar gramatikaren alderdirik konplexuenak lantzen dira, hala nola, kasuak eta aditzekin zerikusia duen guztia (jolasa, denbora, aspektua, aurrizkiak, etab.). Gainerako liburuak bezala, gai bakoitza baino lehen azalpenak eskaintzen ditu, gehienetan errusieraz idatzitako azalpen-testuen bitartez. Dena den, liburu honen gauzarik deigarriena amaiera da, azterketak baitaude ikasitako guztia errebasatzeko eta ikasleak zer landu behar duen ikusteko.

Liburu honek gai oso bat eskaintzen dio aginterari, eta beste gai ezberdin bat mugimenduzko aditzei. Beraz, bi gai horiek aztertuko ditut mugimenduzko aditzen agintera lantzen duten ala ez ikusteko.

Hasiko naiz aginteraren gaia aztertzen. Gai hau 129. orrialdean hasten da azalpen sakon batekin. Azalpena bi zatitan banatuta dago. Lehenengo, aditz burutuen eta burutugabeen arteko desberdintasunak gogorarazten dira eta agintera osatzerakoan zer aspektu erabili behar den aipatzen da. Azalpenak dionez, agintera gehienetan (%80etan) aditz burutuak erabiltzen dira baina aditz burutugabeak ere erabili daitezke bi kasu hauetan: ezezko agintera denean (*не открывай окно!*) edo agindua momentuan bertan bete behar denean (*звоните в милицию!*). Dena den, azalpenaren bukaeran azpimarratzen da aspektua beti testuinguruaren araberakoa dela.

Azalpenaren bigarren zatian, bigarren pertsonako aginteraren eraketa azaltzen da 3 arau hauekin:

## ОБРАЗОВАНИЕ ФОРМ ИМПЕРАТИВА

1. Если в инфинитиве ударение падает на *-ить*: форма императива будет оканчиваться на *-и*: *любить* — *любй(те)*, *ходить* — *ходй(те)*.

Если в инфинитиве ударение не падает на *-ить*: форма императива будет оканчиваться на *-ь*: *готовить* — *готовь(те)*, *стать* — *ствь(те)*.

2. Если инфинитив заканчивается не на *-ить*, то необходимо определить форму 1-го лица единственного числа, т. е. форму «я»: *смотреть* — *я смотрю*. «Я смотрю» — ударение падает на «ю» — значит, в императиве также будет *-и*: *смотреть* — *я смотри* — *смотри(те)*, *идти* — *я иду* — *идй(те)*.

Если в форме «я» ударение не падает на окончание, то в императиве также будет *-ь*: *быть* — *я буду* — *будь(те)*, *плакать* — *я плачу* — *не плачь(те)*.

3. Если в форме «я» при спряжении (изменении) глагола слышим «й» (которое есть в транскрипции), форма императива будет оканчиваться на *-и*: *читать* — *я читаю [читайу]* — *читай(те)*, *петь* — *я пою [пойу]* — *пой(те)*, *пить* — *я пью [пейу]* — *пей(те)*, *рисовать* — *я рисую* — *рисуй(те)*.

\*Исключения: *есть* — *ешь(те)*, *давать* — *давай(те)*, *дать* — *дай(те)*.

Ikus dezakegunez, azalpena nahiko argia da eta gainera mugimenduzko aditzak erabiltzen dira adibide gisa. Aginteraren eraketa azaltzeaz gain, salbuespen batzuk ere aipatzen dira (adibidez, *есть* > *ешь/те*). Salbuespen batzuk ageri arren, ez da *есть* aditza aipatzen, eta nire ustez hori garrantzia handia du eta merezi du zati honetan aipatzea.

Azalpenaren ondoren ariketa asko daude agintera era ezberdinetan lantzeko. Liburu honetako ariketak nahiko aipagarriak dira, askotarikoak direlako eta batez ere, mugimenduzko aditzak barne hartzen dituztelako. Hau da, ariketetan mugimenduzko aditzen agintera aditz arrunten aginterarekin batera lantzen dira. Hona hemen zenbait adibide:

**Упражнение 2.** Образуйте формы императива от приведённых ниже глаголов<sup>1</sup>.

любить —	полюбить —
<u>ходить</u> —	<u>сходить</u> —
дарить —	подарить —
кормить —	накормить —
звонить —	позвонить —
учить —	выучить —
смотреть —	посмотреть —
стучать —	постучать —
брать —	взять —
говорить —	сказать —
класть —	положить —
<u>идти</u> —	
<u>бежать</u> —	
<u>плыть</u> —	
<u>нести</u> —	
искать —	<u>найти</u> —
готовить —	приготовить —

**Упражнение 4.** Выполните упражнение по модели.



Модель: Не надо брать мои вещи. — Не бери(те) мои вещи!

1. Не надо говорить об этом. 2. Не надо стучать в стену. 3. Не надо мне ничего дарить. 4. Не нужно класть пальто на стол. 5. Не нужно выключать компьютер. 6. Не нужно фотографировать в театре. 7. Не надо отвечать на грубость. 8. Не надо ходить к нему. 9. Не надо надевать синий костюм. 10. Не нужно покупать всякую ерунду. 11. Не нужно садиться на мою кровать. 12. Не нужно вставать ногами на стул. 13. Не нужно пить сырую воду. 14. Не надо снимать куртку, здесь холодно. 15. Не надо ложиться в обуви на постель. 16. Не надо радоваться чужим неудачам. 17. Не нужно соглашаться на эту авантюру. 18. Не нужно ничего готовить, мы идём в ресторан. 19. Не надо помогать мне. 20. Не нужно так бежать, я не успеваю за тобой. 21. Не надо пить много вина. 22. Не надо отказываться от выгодного предложения.

**Упражнение 23.** Прочитайте предложения, проследите употребление вида.

1. Давай погуляем. 2. Давай пообедаем сегодня в ресторане! 3. Всё готово? Давайте обедать. 4. Давайте сходим куда-нибудь завтра! 5. Давайте съездим куда-нибудь? 6. Давайте поедem в Новгород! 7. Давай поговорим по душам! 8. Давай посмотрим, что там у тебя. 9. Давай рассказывай, какие у тебя проблемы. 10. Давай откроем окно. 11. Давайте поможем ему! 12. Дай посмотреть! 13. Дай посмотрю. 14. Дай мы посмотрим. 15. Давай не будем ему об этом говорить! 16. Давай не скажем ему об этом.

Ikus dezakegunez, ariketetan mota guztietako aditzak lantzen dira: aditz arruntak, mugimenduzko aditzak, aurrizkidunak, aurrizkigabeak, iragankorrak, iragangaitzak... Dena den, mugimenduzko aditzak sakonago aztertuz gero nabaritu dezakegu gehienetan mugimendu-aditz ezagunenak agertzen direla, esate baterako, *идти*, *ехать* eta *нести*.

Beraz, ondoriozta dezakegu liburu honek, gainerakoek ez bezala, agintera azaltzerakoan eta lantzerakoan, mugimenduzko aditzen agintera ere barne hartzen duela. Izan ere, maila altuagoko liburua da. Maila honetan suposatzen da ikasleek mugimenduzko aditzen orainaldia eta iragana menperatzen dituztela eta prest daudela aditz horien agintera ikasteko.

Hasieran esan bezala, liburu honek mugimenduzko aditzei beste gai oso bat eskaintzen die. Gaia 152. orrialdean hasten da orri bateko azalpen batekin. Hasierako azalpen horretan mugimenduzko aditz ohikoen orainaldia eta iraganazko formak adierazten dira. Azalpenean aditz iragankorrek eta iragangaitzak bereizten dira. Jarraian ariketak eskaintzen dira bi *aktionsart*-ak ondo bereizteko eta aditz-jokoa buruz ikasteko.

Orriak igaro ahala mugimenduzko aditzen aurrizkiak irakasten dira: *no-*, *пу-*, *у-*, *в-*, *под-*, *от-*, *неп-*, *но-* etb. Ariketa hauetan zehar aginteraren zenbait adibide topa ditzakegu:

**Упражнение 31. Прочитайте предложения, определите значение глаголов с префиксом *по-*. Какого вида все эти глаголы?**

1. Он стоял долго, а потом пошёл вперёд. 2. Почему мы остановились? **Поехали!**  
3. Завтра он поедет в Москву. 4. Завтра мой друг поведёт меня на экскурсию. 5. Птица немного посидела на ветке, а потом полетела дальше. **6. Пойдём гулять!** **7. Поедем в Пушкин!**  
8. Поплывём вдоль берега. 9. Он поплыл на лодке на другой берег. 10. Он понёс пальто в химчистку. 11. Завтра он повезёт нас за город на своей новой машине. 12. Где телевизор? Папа повёз его в ремонт.

**Упражнение 43. Прочитайте предложения. Определите значения префикса *про-*.**

1. Он прошёл мимо меня и не поздоровался. 2. Мы прошли через площадь. 3. Демонстранты проходят по площади. 4. Сколько автобусов уже прошло? 5. Машина проехала мимо и не остановилась. 6. По небу проплывали облака. **7. Проходите, раздевайтесь.** 8. **Проходите** в комнату. **9. Пройдите** вперёд, пожалуйста! **10. Проходите** вперёд, пожалуйста!  
11. Прошло два года. 12. Мы весело провели время. 13. Она провела меня в зал. 14. Как он провёз через границу так много денег? 15. Пролетела птица. 16. За время матча мяч несколько раз пролетал над воротами. 17. Всё время мимо меня проезжают машины. 18. Как пройти в иностранный отдел?

Normalean bigarren pertsonako aginterazko formak dira, baina zenbaitetan ezezko agintera eta mekanismo alternatiboak ere topa ditzakegu. Nahiz eta zenbait adibide solteak izan, ez dago mugimenduzko aditzen agintera zehazki lantzen duen atalik.



Laburbilduz, liburu hau aztertuz gero, ikus dezakegu liburu osoena dela eta gure gaia behintzat aipatzen duela, baina hala ere hutsune batzuk topa ditzakegu. Hona hemen, zehazki, zer lantzen duen eta zer ez.

Aginterari dagokionez:

- Bigarren pertsonako agintera eratzeko arauak nahiko argi azaltzen ditu eta gainera azalpenean zehar mugimenduzko aditzak erabiltzen dira adibide gisa.
- Salbuespen batzuk ageri arren, ez da *examь* aditzaren aginterazko forma agertzen. Hori hutsune larria da, askotan erabiltzen den forma baita.
- Bigarren pertsonako agintera azaltzerakoan oso ondo lantzen dira baiezko eta ezezko agintera eta gainera ezberdintzen da noiz erabili behar diren aditz burutuak eta noiz burutugabeak. Beraz, alderdi honi dagokionez, azalpena nahiko osoa da.
- Ez dira mekanismo alternatiboak irakasten. Lantzen den bakarra *давай(ме)* da eta ez dago azalpenik honi buruz, bakarrik ariketa bat. Beraz, zati hau osatu beharra dago: mekanismo alternatibo gehiago sartuz.

Mugimenduzko aditzei dagokionez:

- Oinarrizko kontzeptuak nahiko ondo irakasten dira eta gainera ariketak eskaintzen dira bi *aktionsart*-ak ondo bereizteko.
- Aditz-jokoak oso ondo irakasten dira, bai orainaldia bai iragana.

Mugimenduzko aditzen agintera:

- Mugimenduzko aditzen bigarren pertsonako agintera, aditz arrunten aginterarekin batera irakasten da. Baina nik zati berezi bat egingo nuke mugimenduzko aditzen berezitasunak irakasteko.
- Ez da mugimenduzko aditzen kontsonante alternantzia irakasten (*бежать* > *бежу(ме)*), ezta salbuespenak *поезжай(те)* ere ez.
- Ez da argi azaltzen mugimenduzko aditzen kasuan nola jokatu behar den baiezko eta ezezko agintera egiterakoan. Hau arazoak ekar ditzake eta beraz azalpen sakona ematea merezi du, alde batetik aurrizkirik gabeko aditzak irakasteko (*иди vs не ходи*) eta bestetik aurrizkidunak (*обойди - не обходи*).
- Ez ditu mugimenduzko aditzen mekanismo alternatiboak ezta aipatzen ere

## 6. Ondorioak

Mugimenduzko aditzen agintera lantzeko materiala aztertu eta gero, ondorio ezberdinak atera ditzakegu. Hasteko, ikus dezakegu eskuliburu orokorretan ez dela gure gaia lantzen; alde batetik agintera irakasten da eta, bestetik, mugimenduzko aditzak. Gaiak, bakoitza bere aldetik, nahiko ondo lantzen dira. Arazoa da ez dituztela bi gaiak nahasten eta, beraz, ez dela guk bilatzen duguna lantzen.

Hutsune hori bete nahian, eskuliburu espezifikotara eta gramatika liburueta jo nuen. Baina, zoritxarrez, liburu horietako gehienak ere ez dira oso erabilgarriak mugimenduzko aditzen agintera ikasteko. Nik aztertutako eskuliburuetan gure gaia ez da aipatu ere egiten, nahiz eta liburu baten izenburuan aginterazko formak ageri (*Приходите! Приезжайте! Прилетайте!*). Azkenean, gramatika praktikoa ugari aztertu ostean, topatu nituen gure gaia lantzen edo behintzat aipatzen duten bi liburu. Haien artean osoena *Чистая Грамматика* da, baina hala ere, hutsune asko ditu: ez da kontsonante alternantzia irakasten, ez dira argi azaltzen baiezko eta ezezko aginteraren ezberdintasunak eta gainera ez ditu mugimenduzko aditzen mekanismo alternatiboak aipatzen.

Liburu guztien ariketak aztertu ostean, nik honako ariketa hauek gomendatuko nituzke: bigarren pertsonako agintera irakasteko, Грамматика русского языка liburuaren 603. eta 604. ariketak. Izan ere, *examь* aditzaren aginterazko forma lantzen dute eta aurrizkirik gabeko aditzen baiezko eta ezezko agintera irakasten dute. Horiez gain, mugimenduzko aditzen mekanismo alternatiboak irakasteko, Чистая Грамматика gramatika liburuaren ariketak baliagarriak iruditzen zaizkit, batez ere, 23. eta 43. ariketak.

Laburbilduz, ondorio garbi bat atera dut: material ugari dagoela argi badago ere, gure gaia oraindik ere guztiz osatu gabe dago eta horregatik hau ongi ikasteko ezinbestekoa da eskura ditugun materialak nahastuta erabiltzea. Era honetan, liburu bakoitzaren ariketa eta azalpen egokienak aukera ditzakegu.

Zehazki, gai hau lantzeko nire proposamena zera da: lehenengo mailan (A1) aditz arrunten agintera irakasten hastea, hau da, bigarren pertsonako aginteraren eraketa, erabilera eta salbuespen ohikoenak lantzea. Maila berean, behin agintera azalduta, mugimenduzko aditzak lantzen hasi behar dira. Mugimenduzko aditzak ikasleentzat

erronka nagusienetako bat direla ikusirik, hoberena da oinarrizko kontzeptuak ondo azaltzea: zer diren, zergatik bi *aktionsart* dituzten eta noiz erabiltzen den bakoitza. Oinarrizko kontzeptu hauek irakasteko, aditz pare bakarra landu behar dela uste dut: *удму* eta *ходумь*. Aditz pare hori irakasterakoan, orainaldia, iragana eta aginterazko formak irakatsi behar dira. Aginterazko formak oraindik ez dira asko sakondu behar, nahikoa da ikasleek forma horiek ikastea eta zenbait testuinguru sinpleetan identifikatu eta erabili ahal izatea. Aditzak ondo ulertu dutela ziurtatzeko ezinbestekoa iruditzen zait mota askotariko ariketak egitea eta horretarako eskuragarri ditugun baliabide guztiak erabiltzea. Izan ere, erabileraren poderioz ikasi ohi da ongi hizkuntza bat, eta beraz, zenbat eta ariketa gehiago egin, hobe ikaslearentzat. Maila honetan nik bereziki gomendatzen dut Red Kalinkaren “*Verbos de movimiento rusos tablas y ejercicios*”.

Ondoren, A2 eta B1 mailetan agintera gehiago sakondu beharko litzateke: ezezko eta baiezko aginteraren arteko ezberdintasunak ikusi eta agintera sortzeko mekanismo alternatibo erabilienak irakatsi. Mugimenduzko aditzei dagokionez, maila hauetan aditz pare gehiago sartu beharko dira (*ехать/ездить, лететь/летать, бежать/бегать, плыть/плавать...*). Lehenengo mailan bezala, aditz pare bakoitza irakasterakoan aginterazko forma irakatsi behar da, baina asko sakondu gabe. Maila horietan gainera, zenbait aurrizki irakatsi ohi dira (adibidez, *y-* eta *нпу-*), beraz, ikasleek zailtasun berri bati egin beharko diote aurre: aurrizkidun aditzei.

Guzti hau, ondo ulertuz gero, B2 mailara igaroko dira aginteraren eta mugimenduzko aditzen ezagutza on batekin eta, hortaz, gure gaia lantzeko une ezin aproposagoa izango da. Maila honetan aurreko mailetan emandako guztia birpasatu eta mugimenduzko aditzen aginteraren berezitasunak, mekanismo alternatiboak eta zailtasunak zehatz mehatz landu ahal izango dira. Irakasleak horretarako, kanpoko baliabideak erabili beharko ditu, haien artean, nik aztertu ditudan bi gramatika liburuak.

Laburbilduz, gramatikako atal hau aparteko zailtasuna duen alderdi bat da eta ondo ulertzeko aurretik mugimenduzko aditzak eta aditz arrunten agintera ongi landu behar dira. Horregatik, hain zuzen ere, gai honen zehaztasun eta zailtasun guztiak B2-n mailan landuko nituzke. Dena den, egokia iruditzen zait A2-B1 mailetan ere zertxobait ematea, ikasleek asko irakurri eta entzungo duten forma bat delako.

## 7. Bibliografia

Irabazi-asmorik gabeko erakunde autonomoa "TV-Novosti". (2005-2020). *Verbs of Motion With Prefixes*. 2021/02/25, Learn Russian web-orritik. Web-orria: <https://learnrussian.rt.com/grammar-tables/verbs-of-motion-with-prefixes/>

Levine, J. (2009). *Russian Grammar*. New York: The McGraw-Hill Companies.

Pulkina, I. & Zaxava–Nekrasova, E. (2000) *El ruso: gramática práctica*. Madrid: Rubiños.

RedKalinka. (-). *Verbos de Movimientos Rusos Tablas y Ejercicios*. 2020/04/05, RedKalinka-tik. Web-orria: <https://shop.redkalinka.com/en/exercise-books/79-book-russian-verbs-of-motion-level-a1-a2.html>

А.Н Боромолов и А.Ю. Петанова (2008). *Приходите! Приезжайте! Прилетайте!*. Санкт-Петербург: Златоуст.

Бабаханян, М. Г. (2015). *Изучаем Русские Глаголы Движения*. Москва: Ереванский Государственный Униберситет.

Глазунова, О. И. (2007) *Грамматика русского языка в упражнениях и комментария: морфология*. Санкт-Петербург: Златоуст.

Ласкарева, Е.П. (2008). *Чистая Грамматика*. Санкт-Петербург : Златоуст.

Редькина, М. А. (2008). *Русский Язык в Грамматических Таблицах*. Москва: Русский Язык.

Чернышов, С. и Чернышова, А. (2009). *Поехали!*. Санкт-Петербург: Златоуст.

Шведова, Н. Ю. (1980) *Русская грамматика I-II*. Москва: Академия наук СССР.



Шелякин, М. А. (2001). *Функциональная Грамматика Русского Языка*. Москва: Русский язык.

Эсмантова, Татьяна. (2011). *Русский Язык: 5 Элементов*. Санкт-Петербург: Златоуст.

Юдина, А.П. (1985). *Идти или Ходить*. Москва: Редакционно-издательский совет Московского Университета.